

## IPUIN MAGIKOAK herri kulturaren narrazioak

## CUENTOS MÁGICOS narraciones de la cultura popular




En ambas páginas, ilustraciones iniciales de un típico libro de cuentos, conocidos popularmente como «Cuentos de Hadas» que coinciden con los clasificados como cuentos mágicos.

Muchas de sus ilustraciones, algunas de las cuales reproducimos en esta obra están bellamente impresas según sistemas gráficos de la época.

En ambas páginas, ilustraciones iniciales de un típico libro de cuentos, conocidos popularmente como «Cuentos de Hadas» que coinciden con los clasificados como cuentos mágicos.

Muchas de sus ilustraciones, algunas de las cuales reproducimos en esta obra están bellamente impresas según sistemas gráficos de la época.



LOS TIPOS DEL CUENTO FOLKLÓRICO. Una clasificación  
Aarne & Thompson

I. CUENTOS DE ANIMALES

- 1-99 Animales salvajes
- 100-149 Animales salvajes y animales domésticos
- 150-199 El hombre y los animales salvajes
- 200-219 Animales domésticos
- 220-249 Pájaros
- 250-274 Peces
- 275-299 Otros animales y objetos

II. CUENTOS FOLKLÓRICOS ORDINARIOS

- 300-749 A. Cuentos de magia
- 300-399 Adversarios sobrenaturales
- 400-459 Esposo(a) u otro pariente sobrenatural o encantado
- 460-499 Tareas sobrenaturales
- 500-559 Ayudantes sobrenaturales
- 560-649 Objetos mágicos
- 650-699 Poder o conocimiento sobrenatural
- 700-749 Otros cuentos de lo sobrenatural
- 750-849 B. Cuentos religiosos
- 850-999 C. Novelas (Cuentos románticos)
- 1000-1199 D. Cuentos del ogro estúpido

III. CHISTES Y ANÉCDOTAS

- 1200-1349 Cuentos acerca de tontos
- 1350-1439 Cuentos acerca de matrimonios
- 1440-1524 Cuentos acerca de una mujer (muchacha)
- 1525-1874 Cuentos acerca de un hombre (muchacho)
- 1525-1639 El hombre listo
- 1640-1674 Accidentes afortunados
- 1675-1724 El hombre estúpido
- 1725-1849 Chistes acerca de clérigos y órdenes religiosas
- 1850-1874 Anécdotas acerca de otros grupos de personas
- 1875-1999 Cuentos de mentiras

IV. CUENTOS DE FÓRMULA

- 2000-2199 Cuentos cumulativos
- 2200-2249 Cuentos con trampa
- 2300-2399 Otros cuentos de fórmula

V. CUENTOS NO CLASIFICADOS

- 2400-2499 Cuentos no clasificados

300-749  
A. CUENTOS DE MAGIA

300-399

ADVERSARIOS SOBRENATURALES

300-359 EL OGRE  
(GIGANTE, DRAGÓN, DIABLO, ETC.)  
DERROTADO

- 300. El matadragones
- 301. Las tres princesas robadas
- 301A. La búsqueda de la princesa desaparecida
- 301B. Lo mismo, precedido por:  
El hombre fuerte y sus compañeros
- 302. El corazón del ogro (diablo) en el huevo
- 303. Los gemelos o hermanos carnales
- 306. Los zapatos acabados por tanto bailar
- 310. La doncella en la torre
- 311, 312. El rescate por la hermana. Las tres hermanas rescatadas del poder del ogro
- 312. El matagigantes y su perro (Barba Azul)
- 312A. El hermano rescata a su hermana del tigre
- 313, 314. La huida mágica
- 313. La muchacha de ayudante en la huida del héroe
- 314. El joven transformado en caballo
- 315. La hermana Infiel
- 326. El joven que quiso saber lo que es el miedo
- 326A. El alma liberada del tormento
- 327. Los niños y el ogro
- 328. El muchacho roba el tesoro del gigante
- 329. Se esconde del diablo
- 330. El herrero engaña al diablo
- 332. La muerte padrino

400-459

ESPOSO(A) U OTRO PARIENTE  
SOBRENATURAL  
O ENCANTADO

400-424 LA ESPOSA

- 401. La princesa transformada en venado
- 403. La novia negra y la novia blanca
- 408. Las tres naranjas

425-449 EL ESPOSO

- 425. La búsqueda del esposo perdido
- 433. El príncipe de serpiente

450-459 HERMANO O HERMANA

- 451. La doncella que busca a sus hermanos

300-749  
A. MAGIAZKO IPUINAK

300-399  
NATURAZ GAINDIKO AURKARIAK

- 300-359 OGROA (ERRALDOIA, HERENSUGEA,  
DEABRUA ETA ABAR)  
GARAITUA
300. Herensegu-hiltzailea  
301. Hiru printzesa lapurtuak  
301A. Desagertutako printzesaren bilaketa  
301B. Berdina, baina aurretik: gizon indartsua eta haren lagunak  
302. Ogroaren (deabrua) bihotza arrautzan  
303. Bikiak edo odoleko anaiak  
306. Zapata hondatuak hainbeste dantzatzaz  
310. Dontzeila dorrean  
311, 312. Arrebak/ahizpak askatzea.  
Askatutako hiru ahizpak  
312. Erraldoi-hiltzailea eta haren txakurra (Bizar Urdin)  
312A. Anaiak bere arreba tigrearen atzaparretatik askatzen du  
313, 314. Ihesaldi magikoa  
313. Neskatoa laguntzaile heroiares ihesaldian  
314. Zaldi bihurtutako gaztea  
315. Arreba/ahizpa desleiala  
326. Beldurra zer den jakin nahi izan zuen gaztea  
326A. Tormentutik libratutako arima  
327. Haurrak eta ogroa  
328. Mutikoak erraldoiaren altxorra lapurtzen du  
329. Deabrua ezkututzen da  
330. Arotzak (errementariak) deabrua engainatzen du  
332. Heriotza-aitajana

400-459  
NATURAZ GAINDIKO EDO SORGINDUTAKO  
SENARRA (EMAZTEA)  
EDO BESTE AHAIDEREN BAT

- 400-424 EMAZTEA
401. Orein bihurtutako printzesa  
403. Ezkongai beltza eta ezkongai zuria  
408. Hiru laranja
- 425-449 SENARRA
425. Galdutako senarraren bilaketa  
433. Printzea suge gisa
- 450-459 ANAIA EDO ARREBA/AHIZPA
451. Bere anaiak bilatzen dituen dontzeila

300-749  
A. TALES OF MAGIC

300-399  
SUPERNATURAL ADVERSARIES

- 300-359 THE OGRE  
(GIANT, DRAGON, DEVIL, COBOLD,  
ETC.) IS DEFEATED
300. The dragon-slayer  
301. The three stolen princess  
301A. Quest for a vanished princess  
301B. The same preceded by «The strong man and his companions»  
302. The ogre's (devil's) heart in the egg  
303. The twins or blood-brothers  
306. The danced-out shoes  
310. The maiden in the tower  
311, 312. Rescue by the sister.  
Three sisters rescued  
312. The giant-killer and his dog (Bluebeard)  
312A. The brother rescues his sister from the tiger  
313, 314. The magic flight  
313. The girl as helper in the hero's flight  
314. The youth transformed to a horse  
315. The faithless sister  
326. The youth who wanted to learn what fear is  
326A. Soul released from torment  
327. The children and the ogre  
328. The boy steals the giant's treasure  
329. Hiding from the devil  
330. The smith outwits the devil  
332. Godfather death

400-459  
SUPERNATURAL OR ENCHANTED  
HUSBAND (WIFE)  
OR OTHER RELATIVES

- 400-424 WIFE
401. The princess transformed into deer  
403. The black and the white bride  
408. The three oranges
- 425-449 HUSBAND
425. The search for the lost husband  
433. The prince as serpent
- 450-459 BROTHER OR SISTER
451. The maiden who seeks her brothers

300-399 SUPERNATURAL ADVERSARIES

300-399 ADVERSARIOS SOBRENATURALES

300-399 NATURAZ GAINDIKO AURKARIAK



## Herensuge

El Herensuge, vencido,  
desaparece en el mar occidental,  
en los «mares bermejos».

Herensugea, menderatuta,  
mende bal itsaspean,  
«itsasgorrietan», ezkutatzen da.

300-359 THE OGRE (GIANT, DRAGON, DEVIL, COBOLD, ETC.) IS DEFEATED

300-359 EL OGRO  
(GIGANTE, DRAGÓN, DIABLO, ETC.)  
DERROTADO

300-359 OGROA  
(ERRALDOIA, HERENSUGEA, DEABRUA  
ETA ABAR) GARAITUA



### 300. THE DRAGON-SLAYER

#### 300. EL MATADRAGONES

#### 300. HERENSUGE-HILTZAILEA

##### El dragón

La serpiente de siete cabezas  
The seven-headed serpent  
(W.W.)



##### 300. El matadragones

Una vez había una madre con sus tres hijos, como muchas en el mundo.

El (hijo) mayor le dijo que quería ir por el mundo hasta encontrar un puesto de sirviente, y que le diese un bollo (de pan). Y se marcha.

Yendo por el bosque se encuentra con una mujer, muy, muy vieja que le pide un trozo del bollo(1). Le responde que no, que preferiría echarlo al barrizal. Pero aquel joven le pregunta a ver si había oído de algún puesto de sirviente. Le dice, que no.

Y él se va de bosque en bosque hasta que le alcanza la noche. Y le sale un lobo. (Que) le dice:

—¡Hormiga rastrera!, quién te ha podido dar a ti permiso para venir aquí?

—¿Quién me tenía que dar? ¡Yo mismo he cogido!

Y (el lobo) se lo traga.

El segundo hijo pide a su madre que, como su hermano, él también quiere ir de criado, y que le dé un bollo. Le da. Y se va.

Como su otro hermano se encuentra también con aquella vieja. Ella le dice:

—¡Dame un poquito de pan!

—Prefiero, antes que dártelo a ti, tirarlo a ese barrizal.

Y el chico le pregunta si ha oído de algún puesto de sirviente. Le responde, que no.

Y se va, ir, ir, ir, adentro del bosque.

Allí encuentra un lobo grande. (Que) le dice:

—¡Hormiga rastrera! ¿a ti quién te ha dado permiso para venir aquí?

##### Heren sugea

La serpiente de siete cabezas  
The seven-headed serpent  
(W.W.)

##### 300. Herensuge-hiltzailea

Asko munduan bezala bazen ama bat bere hiru semekin. Zaharrenak erran zioen gan nahi zubela munduz mundu sehi plaza bat atzeman arte eta emateko opil<sup>1</sup> bat. Partitzen da.

Bazalarik oihan batean atzematzen du emazteki zahar zahar bat eta galdetzen dio opil piska bat(1). Erraten dio ezetz, nahiago lukela botatu basa bustiña hortarat. Eta gizon gazte horrek galdetzen dio eian mutil plazarik senti<sup>2</sup> duben. Erraten dio ezetz.

Eta badoha oihanez oihan gabak<sup>3</sup> atzeman arte. Eta heldu zaio otso bat. Erraten dio:

—Lurreko xinaurria, nork eman behar hau permisionea hunarat ethortzeko?

—Nork eman behar nik dikan? Neonek hartu!

Eta iresten du.

Bigarren semeak galdetzen dio bere amari, bere anaiak bezala nahi dubela gan mutil eta emateko opil bat. Ematen dio. Eta badoha.

Bertze anaiak bezela atzematzen du emazteki zahar hura. Erraten dio:

—Ekharzu opil pitta bat!

—Nahiago dut zuri eman baiño basa bustiña hortarat bota.

Eta galdetzen dio mutiko horrek sehi plazarik senti duben. Erraten dio ezetz.

Eta badoha, gan, gan, gan, oihanaren barnera.

Eta atzematzen du otso handi bat. Erraten dio:

—Lurreko xinaurria! Nork eman hau permisionea hunarat ethortzeko?

—¿Quién me tenía que dar? ¡Yo mismo he cogido!  
Y (el lobo)se lo traga.

El tercer hijo le pide a su madre que quiere marchar, igual que sus hermanos, y que le dé un bollo. Y se va.

Va, va, va (Ir, ir, ir,) y se encuentra con una vieja. Le pregunta:

—¿A dónde vas, chico?

—Quisiera tener un puesto (de trabajo).

—Dame un poquito del bollo.

—Y también todo entero si quieres.

—¡No, no! con un poco tengo bastante.

Y él le pregunta a ver si ha oído de algún puesto de criado. Le dice que sí; que encontrará un palacio lejos, en el bosque. Pero que encontrará un enemigo. Pero que (ella) le dará un palo con el que lo toca y lo matará (2).

Ahí se va; ir, ir, ir. Se le ha acercado un lobo que le dice:

—¡Hormiga rastrera! ¿a ti quién te ha dado permiso para venir aquí?

—¿Quién me tenía que dar? ¡Yo mismo he cogido!

Y le da un golpe con su palo en el cuello. El lobo empieza a aullar:

—¡Oh, oh, oh! ¡Déjame, tú! ¡Tú, déjame vivo! (*déjame la vida*)

—Pues, tú dime cuántos vivís por aquí.

—¡Siete!

Le da otro golpe, y cae seco (cadaver, muerto).

Ahí se va; ir, ir, ir, hasta encontrar el palacio. Y entra en aquel palacio. Pregunta:

—¿Necesitáis (algún) criado?

Le dicen que sí, que el pastor se les ha ido y lo necesitan. Le mandan a la cama.

Al día siguiente le dan un buen rebaño y le dicen que no vaya a un monte así (a tal monte), porque está lleno de unos animales grandes y terribles. Y para tener (que tuviera) mucho cuidado pues las ovejas siempre quieren ir allí.

Al día siguiente va con sus ovejas y todas se le escapan hacia aquel monte, pues allí había buen pasto.

Nuestro pastor no había olvidado su palo, y lo necesitó, pues en aquel momento se le aparece un lobo enorme.

—¿A ti, quién te ha dado permiso para venir aquí?

—¡Yo mismo he cogido!

—¡Te voy a comer!

Se le acerca y le da nuestro pastor con su palo un pequeño golpe en el cuello. Y el lobo se pone a gritar:

—¡Ay, ay, ay! ¡Tú, déjame vivo! (*déjame la vida*)

—Dime pues, cuántos sois en este lugar.

—Siete éramos ayer, pero hoy, conmigo, somos seis.

—Nork eman behar nik dikan? Neonek hartu!  
Eta iresten du.

Hirugarren semeak galdetzen dio bere amari bertze anaiak bezala gan nahi dubela eta emateko opil bat. Partitzen da.

Gan, gan, gan eta atzematen du emazteki xahar bat. Galdetzen dio:

—Nohat zuazi mutil?

—Plazatu<sup>3b</sup> nahi nuke. Ekarzu opil pitta<sup>4</sup> bat.

—Hori guzia ere nahi baduzu.

—Ez, ez! piska bat aski dut.

Eta galdetzen dio eian sendi duen mutil plaza bat. Erraten dio baietz. Atzemanen dubela palazio bat oihanetikan urrun. Baña, atzemanen dubela etsai bat. Bañan ematen dioela makil bat zeinakín ukitu eta hilen baitu(2).

Badoha, gan gan gan. Heldu zaio otso bat erraiten baitio:

—Lurreko xinaurria! Nork eman hau permisionea hunat ethortzeko?

—Nork eman behar nin dikan? Nehonek hartu!

Eta ematen dio zarta bat bere makillekin lepuan. Ematen da otsoa marrasketan<sup>5</sup>:

—Oi! Oi! Oi! Utz nazak! Utz nazak bizia!

Bañean erraten dio:

—Erran nazak bada zenbat zaitzen tokian.

—Zazpi!

Ematen dio bertze zarta bat eta hil hotza erortzen da.

Badoha gan, gan, gan palazioa atzeman arte. Eta sartzen da palazio hartan. Galdetzen du:

—Behar duzube mutilik?

Erraten diote baietz, artzaña gana dutela eta behar dutela. Egortzen dute ogerat.

Biharamuñian ematen diote artalde eder bat eta erraten diote ez gateko holako mendirat zeren alimalia handi eta izigarri batzuez bethia baita. Eta emateko ungi kondu zeren ardiek bethi harat gan nai beitate.

Biharamuñian badoha bere ardiekin eta denak eskapatzan zaiozkate mendi hartarat zeren bazka ederra baitzen han.

Gure artzeinak ez zuen ahantzi bere makila, beharrik, zeren istantean agertzen baitzaio otso izigarri bat.

—Nork eman hau permisionea hunat ethortzeko?

—Neonek hartu!

—Jan behar haut!

Urbiltzen zaio eta ematen dio gure artzainak bere zigorrarekin golpe txiki bat lepuan. Ematen zaio oihuka:

—Ai, ai, ai! Utz nazak bizia!

—Erran nazak bada zenbat zaitzen tokian.

—Zazpi gintukan atzo, bainan egun enekin sei.

Le da otro golpe con el palo y, tieso, cae muerto; y lo esconde, como puede, en un zarzal.

Vuelve el pastor a casa con las ovejas bien alimentadas. Al atardecer le dieron leche abundante y el pastor hizo unos quesos hermosos(3). El señor y la señora de la casa estaban encantados de tener a un chico tan bueno.

Al día siguiente va de la misma forma. Nada más abrir la puerta, todas las ovejas ahí van a aquellas buenas hierbas y pastos de la víspera, y en un momento, igual (que el día anterior), se le presenta un oso preguntando en qué anda en este sitio. Nuestro pastor con su palo le da un golpe en el cuello y el oso se pone a gritar:

—¡Ay, ay, ay! ¡Tú. Déjame vivo!. (*déjame la vida*)

Le pregunta el pastor:

—¿Cuántos sois los que estáis ahí?

—Pues, ya éramos siete, pero ahora, conmigo, somos cinco.

Y en ese momento le da otro golpe. Y, tieso, cae muerto. A los otros tres lobos los mató del mismo modo, uno por día.

Cuando (le) vino el último (lobo) se extrañó de ver una bestia tan grande y terrible. Llegó arrastrándose de lo vivo que era. De misma forma, éste también, le pregunta qué hacía por aquellos parajes suyos.

Y mientras está diciendo esto, el pastor, le pega (con el palo). Empieza a dar gritos horribles; que lo dejara vivo, que le daría riquezas, sitios hermosos, y que vivirían juntos. Lo deja vivo, manda a casa el rebaño bien alimentado, y se van (los dos) de zarzal en zarzal por las cuevas de las lamias(4).

Llegan a un hermoso palacio. Allí encuentran una mesa preparada y todas las cosas buenas que se quisieran para comer. También había criados a su (*nuestro*) servicio. También estaban preparados los caballos, ¡pero, cómo preparados! Los arneses cubiertos con oro y diamantes; todas las habitaciones llenas de oro y plata. No había más que riquezas.

Después de pasar así algunos días, nuestro pastor se dijo para sus adentros que lo mejor sería hacerse dueño de toda esa fortuna.

Le da un palacio al oso. Lo mata, (lo deja) tieso. Se monta en el caballo, bien vestido, y ahí se va de mundo en mundo.

\*\*\*

Llega a un pueblo, y oye las campanas dilin dong, dilin dong dong, y allá todo el mundo estaba excitado; y pregunta qué es (qué pasa). Le dicen cómo hay en el monte un dragón, al que hay que darle de comer una persona cada día. Eran siete las cabezas que tenía aquella culebra (aquel dragón). Se echaba a suertes a quién se le arrojaba al dragón. En el sorteo le había tocado a la hija del rey. Todo el mundo estaba apenado y dolorido; y todos iban al monte con el rey por delante.

La dejan (a la hija) al pie del monte, y ella se iba ya hacia arriba. Aquel joven va por detrás y le dice que quería seguirle. La hija del rey le dice:

Ematen dio bere makillekin bertze kolpe bat eta hil gogorra erortzen da eta ahal bezela gorditzen du sasi batean.

Artzaiña badoha etxerat ardiak ungi aserik. Arratsean eman zioten esne hañitz eta in zituen gasna eder batzuek(3). Etxeko jauna eta etxeko anderia zoratubak ziren halako mutil ona izatiaz.

Biharamuñian badoha igual. Athea ideki orduko, ardi guziak lasterka badoazi bezperako belar eta bazka on hartarat, eta igual instant baten buruban, agertzen da artza, erraten diolarik zertan dabilan toki heketan. Gure artzainak bere zigorrarekin ematen dio zarta bat lepuan eta artza ematen da oiuka:

—Ai, ai, ai! Utz nazak bizia!

Galdetzen dio artzaiñak:

—Zenbat zaizte zaizten tokian.

—Bagintukan zazpi eta orai borts nerekin.

Eta ematen dio horrekin batean bertze zarta bat. Eta hil gogorra erortzen da. Eta bertze hiruak igual hil zituen egunian bat.

Eta azkenekua ethorri zenian arritu zen halako bestia handi eta izigarria ikhustean. Herrestan arribatu zen, hain zaharra zen. Erraten dio igual zertan zabillan haren ingurutan.

Eta horrekin batean ematen dio zarta bat. Ematen da oi-huka orroaz, emateko bizia, emanen zioela aberastasunak, toki ederrak eta elkarrekin biziko zirela. Uzten dio bizia, egortzen du artaldia etxerat ungi aserik eta badohazi sasiz sasi lamiña zilotarik(4).

Arribatzen dire palazio eder baterat. Han atzematen dute mahaña emana eta zernahi gauza on jateko. Mutilak ere baziren gure zerbitzuko. Zamariak ere prest zagozin badiñan nola antolatubak! Harnasak<sup>6</sup> urhez eta diamantez beztitubak, gela osuak urhez eta zillarrez bethiak. Ez zen aberastasunik bertzerik.

Zenbait egun hala pasatu eta gure artzaiñak erran zuen bere buruan, hobe zubela bere nausi izan fortuna hoik guziez.

Ematen dio artzari zartako bat. Hiltzen du, hil gogorra. Zaldi gañian eman eta ederki beztitu eta badoha munduz mundu.

\*\*\*

Arribatzen da herri baterat eta aditzen du ezkillak dilin dong dilin dong dong, zeñietan mundu guzia airean beitzen, galdetzen du zer den. Erraten diote nola den mendian heren suge<sup>7</sup> bat zeñeri presuna bat behar beitzai eman egun guziez. Suge harek bazituen zazpi buru. Iten zen sorthea jakiteko nor eman suge hari. Sorthea erori zen erregeren alabarengaiat. Mundu guzia penetan eta xangrinetan zen eta denak bazuazi errege buruz haren segi mendirat.


Uzten dute mendiaren azpian eta bazuan goiti, bera. Gizon gazte hura badoha ondolik eta erraten dio nahi dubela segitu. Erregen alabak erraten dio:

## La tradición oral del cuento

Los cuentacuentos. Diferentes narradores, oyentes y ambientes.



## La narración leída del cuento - Ipuinaren narrazio irakurria



# Ipuinaren ahozko tradizioa

Kontu-kontalariak. Kontalari, entzule eta giro desberdinak



El tiempo de la narración es un tiempo ritual

En la narración del cuento nos encontramos, no cabe duda, inmersos en un tiempo ritualizado, incluso religioso y, consecuentemente, cargado de simbolismo.

Es el tiempo de la transmisión actualizadora de los contenidos del saber popular.

Kontakizunaren denbora erritozko denbora da

Ipuina konta-entzutean errito eta erlijiozko bihurturiko denbora batetan gaude, sinboloz beterikoa.

Jakintza herrikoia edukien

gaurkoratze transmisioaren denbora da.

—Vete de vuelta, te lo ruego; no quiero que arriesgues tu vida por mí.

Pero éste le responde que no temiera por él, que él ya tenía algún poder. En ese momento, oyen un estrépito y unos resoplidos que ven que les llegan por encima, como fuego. Nuestro joven, que llevaba el palo consigo, le pega un palazo en una de las cabezas, y, de una en una, le corta todas, y nuestra princesa está salvada.

Ella para ir al monte se había puesto sus mejores vestidos; llevaba puestos, siete. Él le coge un trozo de cada vestido, y a cada cabeza cortada le quita la lengua, y pone cada una (de las lenguas) en un trozo de seda; y monta a la hija del rey en su caballo, y bajan del monte. La hija del rey marchó a casa de su padre, y nuestro joven a casa de su lobo.

Pronto se supo que el dragón había muerto. El rey había prometido dar su hija y la mitad del reino a quien matara aquella culebra. Al pasar por el monte, tres carboneros ven aquella culebra. Cogen las siete cabezas y van a ver al rey, en busca de la recompensa.

Pero, como eran tres, discutían entre ellos. Y los despacharon hasta que se reuniera el consejo y ver si aparecía algún otro (pretendiente). Y como no aparecía nadie, iban a echar a suertes para saber quién sería el marido de la hija del rey.

Aquel día había una gran actividad en el pueblo, también en el momento en que el joven (nuestro) llega. Pregunta qué pasa. Le dicen lo que pasaba. Iba bien vestido y con un hermoso caballo. Pide ver al rey; y como iba muy bien vestido le recibieron enseguida.

Y pregunta a ver si aquellas cabezas tenían lengua. Y no las encontraron. Entonces muestra él las siete (cabezas). Hace que traigan los siete vestidos de la reina y les muestra los siete trozos que le faltaban (a los vestidos) y las siete lenguas. Cuando ven esto, todos dicen que éste era el verdadero salvador y esposo de la hija del rey.

A los tres carboneros, les dieron a cada uno una camisa con azufre, y los quemaron en medio de la plaza.

Y nuestros señores vivieron bien, unas veces con el padre de ésta, y otras, en su lobera.

Y como bien vivieron, bien murieron.

Entonces yo estaba allí, ahora (estoy) aquí.

#### Notas:

*Leyendas Vascas* nº 33. Ediciones Miraguano.

(1) Recuerdo vagamente haber leído algo muy parecido a esto en un cuento eslavo o dálmata.

(2) Este incidente aparece en un cuento traducido por Chambers, titulado «Rouge Etin», que aparece en los «Contes de la Grande Bretagne», de Bruyere, pág 64.

(3) En los Pirineos se ordeña a las ovejas, y con la leche se fabrica o queso o «caillé», una especie de crema cuajada. Las ovejas que se han de ordeñar son a menudo guardadas en un establo o en un redil durante la noche.

—Zoazi othoi gibelerat, ez dut nahi neregatik zure bizia irriska dezazun.

Bañian erraten dio ez izitzeko hartaz, bazubela podore zerbeit. Horrekin batean aditzen dute harrabots eta sistu handi batzuek eta ikhusten dute suba bezala heldu dela hekien gañeat. Gure jaunak bere makilla han baitzuen, ematen dio zarta bat buru baten gañian, eta bat banazka, zazpiak pikatzen diozka eta gure printzesa salbatua da.

Mendirat gateko jauntzi zituen bere arropa ederrenak. Bazituen zazpi soñian. Artzen dio puska bana arropa bakotxetik eta hartzen du igual buru bakotxetik mihiak, zeñak ematen beitu seda puska hekietan eta hartzen du errege alaba hori bere zaldiaren gañian eta jausten die menditik. Erregen alaba badoha bere aitaren etxerat eta gure jauna bere otsuaren etxerat.

Herensuge hil delako berria laster jakindu zen. Erregek agindu zuben bere alaba ematea hil zubenari eta bere erre-sumaren erdia suge hura hil zubenari. Hiru ikazgin menditik pasatzian ikhusten dute suge hura. Artzen dituzte zazpi buruak eta badohazi erregerenganat, bere saria nahiz.

Bañian hiru beitziren, enbrazutan<sup>8</sup> ziren. Eta egorri zituzten kontseiluba bildu arte eta ikhusi arte eian bertze norbeit ethorriko zen. Nihor ez baitzen ageri, sortean tira-tzerat zoazin, nor izanen zen erregen alabaren senharra.

Mohimendu handi bat zen egun hartan, igual jaun gazte hura arribatzen denian herri hartarat. Galdetzen du zer den. Eta erraten diote zer zen. Ederki beztitua eta zamari eder batekin zen. Galdetzen du errege ikhustia. Eta ederki beztitua baitzen berehala errezebitu zuten.

Galdetzen du eian buru hekiek bazuten mihirik. Eta ez zuten atzeman. Orduan irakusten ditu zazpiak. Ekar arazten ditu erregen alabaren zazpi arropak eta irakusten ditu zazpi puska eskas zirenak eta zazpi mihiak. Hori ikhusten dutenian denek erraten dute hori dela egiezko erregeen alabaren salbatzalia eta esposa.

Bertze hiru ikazkiñeri athorra sufresko bana eman eta erre zituzten plazaren erdian.

Eta gure jaun andriak ungi bizi ziren batzoetan bere aitarekin eta bertzetan bere otso tokian.

Ungi bizi izan baitziren, ungi hil ziren.

Orduan han nintzen eta orai hemen.

#### Hiztegia:

1 opil: ogi txiki bat; 2 senti: aditu, entzun; 3 gaba: gaua; 3b plazatu: morroi edo neskame jarri; 4 pitta: apur; 5 marrasketan: oihutan, oihuka; 6 harnasak; txalmak; 7 herensuge: dragoia; 8 enbrazu: buruhauste.

#### Oharrak:

*Leyendas Vascas*. Miraguano Argitalpena, 33. znb.

(1) Lausoki oroitzen naiz ipuin eslaviar edo dalmaziar batean honen oso antzeko zerbait irakurri izana.

(2) Gorabehera hau Chambers-ek itzulitako «Rouge Etin» izeneko ipuinean azaltzen da, Bruyere-n «Contes de la Grande Bretagne» 64. orrialdean agertzen dena.

(3) Pirinioetan jetzi egiten dira ardiak, eta esne horrekin gazna edo «caillé=mamia» esne gatzatua egiten da. Jetzi behar diren ardiak ukuilu edo artegi batean sartzen dira gauerako sarritan.

(4) Ver la introducción a los «Cuentos del Lamiñak», en la que se habla de estos «agujeros de las hadas».

• **Wentworth Webster**

Nuestra fuente: *Klasikoak 56*. Ipuinak I. Edición de Xipri Arbelbide. Edit. Kriselu, 73 or.

Trad. K.U. y E.A.

Nota del editor: Entre las posibles denominaciones de estos seres que Barandiarán incluye entre seres mitológicos (Mitología del Pueblo Vasco, pág. ... ) optamos por la de lamias. Otros posibles nombres son «sirena y «hada».

Fuente original: «Basque Legends: Collected, Chiefly In The Labourd », pág. 33 (ver también 150, 252).

(4) Ikus «Laminak» ipuinen sarrera, ezen «maitagarrien zuloak» deritzanetaz hitz egiten den.

• **Wentworth Webster**

Gure iturria: *Klasikoak 56*. Ipuinak I. Xipri Arbelbideren edizioa. Kriselu Argitaletxea, 73. or.

Jatorrizko iturria: «Basque Legends: Collected, Chiefly In The Labourd », 33. or. (begiratu 150, 252 ere).

## Dar-dar

(J.M.B.)



### 300. El matadragones

**E**n un reino había una serpiente en su cueva. Cuando sentía hambre, salía de la cueva y mataba a mucha gente. Viéndolo el rey de aquel reino, ordenó se llevara a su cueva una persona cada día, echando suertes.

Una vez salióle [la suerte] a la hija del rey. Entonces el rey publicó que a quien librase a su hija y matase a la serpiente, entregaría su hija y la mitad del reino.

Un hombre, provisto de unos garfios de hierro, se presentó delante de la cueva de la serpiente. Allí encontró a la hija del rey y mandó a ésta a casa. Delante de la cueva había un árbol, y empezando de abajo hacia arriba le metió los garfios de hierro, él subió más arriba que los garfios, provisto de un martillo en la mano.

Cuando la serpiente salió de la cueva, vio al hombre y fue a subir sobre el árbol. Hallándose ya próxima al hombre, éste la pegó con el martillo, y la serpiente retrocedió hacia abajo y se le metieron por el cuello aquellos garfios. Allí mismo mató a la serpiente.

Después arrancó las lenguas a las siete cabezas de la serpiente y se fue de allí.

Después llegó un muchacho al sitio en que estaba la serpiente y quitó a la misma las cabezas y se presentó al rey [diciendo] que él la había matado.

Mostró las cabezas al rey. Éste creyó que él era quien había matado la serpiente, y trajo delante de él a la hija, y la hija le decía que aquél no era quien la liberto.

Entonces llegó el otro, y preguntó al rey a ver si aquellas cabezas tenían lengua.

Al ver el rey que no tenían lengua, pensó que era impostor el que había presentado las cabezas.

El nuevo que había llegado, enseñó al rey las lenguas de las siete cabezas.

Presentó a éste ante la hija, y la hija dijo que él era quien la había liberto.

## Dar-dar

(J.M.B.)

### 300. Herensuge-hiltzailea

**E**rreñu baten sierpe bat eguän bere kueba. Gosetuten sanien, urteten eban kuebatik da jende asko galtze eban. Au ikusirik erreñu atako erregek ordena imiñi eban egunien presona bat beren kuebara erueteko, subertiän botata.

Baten urte' eutzen erregen alabieri. Erregek orduan zabaldu eban bere alabie libreuta sierpiä galduten ebanari emongo eutzela bere alabie da erreñurik erdiye,

Gixon bat juän san burdiñezko gantxo batzuk artutä sierpiän kuebien äurrera. An topau eban erregen alabie, da berau etzera bota eban. Kuebien äurriän eguan tantai bat, da beiän asi ta gora sartu eutzesan burdiñezko gantxoak, igo eban gantxoak baño gorau bera, mallu bat eskuen ebala.

Kuebatik urte ebaniän sierpiäk, ikusi eban gixona da juän san tantaian ganera igoten. Ia eldu sanien gixonañä onek malluegas jo eban, da sierpiäk ei' eban berantz da sartu jakosan euren sametatik gantxo arek. Sierpiä bertan galdut eban.

Gero sierpiän saspi buruberi miñek kendu eutzesan, da gorde zittusen, da juän san andik.

Gero etorri san mutill bat sierpiä eguän lekurä, da berari buruek kendu da joän san erregegana berak ill ebala ta.

Erakutzi eutzesan buruek erregeri. Onek sinistu eban bera sala sierpiä galdu ebana, da ekarri eban alabie beren äurrera da alabiek esate eutzen a etzala bera librau ebana.

Orduän etorri san bestiä, preguntau eutzen erregeri ia arek buruek miñik badeuke.

Ikusirik erregek ez eukela miñik, pensau eban guzurrez-kue sana buruek ekarri sittuena.

Erakutzi eutzesan erregeri zaspi buruen miñak beste etorri san barriek.

Alabieri erakutzi eutzen au, da alabiek esa' eban aixe zala bera librau ebana.

Entonces metió preso al que trajo las cabezas, casó con su hija a quien trajo las lenguas y le dio la mitad del reino.

• José Miguel de Barandiarán

Nuestra fuente: El mundo en la mente popular vasca III. Edit. Auñamendi, pág. 32.

→ Ver Apéndice, pág. 441.

Orduän sartu eban preso buruek ekarri sittuena, eskondu eban bere alabiegaz miñek ekarri sittuena, da emon eutzen erreñurik erdiye.

• Jose Migel Barandiaran

Gure iturria: El mundo en la mente popular vasca III. Auñamendi, 32. or.

→ Ikus Eranskina, 441. or.

## La servilleta que daba de comer

La nappe nourricière, la flûte et le couteau enchantés (J.F.C.)

300. El matadragones

**H**abía tres hermanos. Un día van al mercado.

El mayor parte primero cargado de uvas. En el camino se encuentra con una vieja mujer. La vieja le dice:

—¿Dónde vas?

—Al mercado.

—¿Qué tienes para vender?

—Ramas.

—Si tienes ramas, vende ramas.

Cuando llegó al mercado, el chico encontró su red llena de ramas.

El segundo hermano parte cargado de manzanas. Aquél también se encuentra con la vieja. La vieja le dice a aquél también:

—¿Dónde vas?

—Al mercado.

—¿Qué tienes para vender?

—Sapos.

—Si tienes sapos, vende sapos.

Cuando llegó al mercado, encontró su red llena de sapos.

Luego parte el hermano más joven cargado de frutas. Éste también se encuentra con la vieja de siempre. A él le dice:

—¿Dónde vas?

—Al mercado.

—¿Qué tienes para vender?

—Frutas.

—¿A cuánto?

—A ti, si quieres, te daré algunas gratis.

—No me hacen falta. Y como premio a tu buena voluntad, toma tres cosas.

Una servilleta: te bastará con desplegarla, tendrás todas las cosas que quieras de comer.



## Jateko ematen zuen serbieta

La nappe nourricière, la flûte et le couteau enchantés (J.F.C.)

300. Herensuge-hiltzailea

**B**azütüzün<sup>1</sup> hirur anaie. Egün batez merkhatialat<sup>2-3</sup> phartitzen dütüzü<sup>4</sup>.

Zaharrena lehenik abiatzen düzü<sup>5</sup> mahatsez kargaturi(k). Bidea gainti<sup>6</sup> juaiten zelarik batzen<sup>7</sup> dizü<sup>8</sup> emazte xahar bat. Emazte xaharrak erraiten diozü<sup>9</sup>:

—Nurat juaiten hiz?

—Merkhatialat<sup>2-3</sup>.

—Zer dük saltzeko?

—Adar.

—Adar balin badük, adar salak<sup>10</sup>.

Merkhatiala<sup>2-3</sup> heltü zenean, muthiko harek ediren<sup>11</sup> zizün<sup>12</sup> bere sarea adarrez betherik.

Bigarren anaia abiatzen düzü<sup>5</sup> sagarrez kargatürük. Batzen dizüe harek ere ber emazte xaharra. Emazte xaharrak erraiten diozü<sup>9</sup> hari ere:

—Nurat juaiten hiz?

—Merkhatialat<sup>2-3</sup>,

—Zer dük saltzeko?

—Apho.

—Apho balin badük, apho salak<sup>10</sup>

Merkhatiala<sup>2-3</sup> heltü zenean, sarea aphoz betherik ediren<sup>11</sup> zizün<sup>12</sup>.

Gero anaie gazteena abiatzen düzü<sup>5</sup> frütüz kargatürük. Sekülako emazte xaharra harek ere batzen<sup>7</sup> dizü<sup>8</sup>. Hari erraiten diozü<sup>9</sup>:

—Nurat hua?

—Merkhatialat<sup>2-3</sup>.

—Zer dük saltzeko?

—Frütü.

—Zunbana?

—Zuri, nahi badüzü, emanen deizüt<sup>14</sup> zunbait duhainik.

—Ez diat beharrik. Eta hire boronthate hunaren sari, thotza<sup>13</sup> hirur gaiza.

Serbieta<sup>15</sup> bat: aski dükek<sup>16</sup> horren hedatzea, jateko nahi ditianak oro ükhenen dütük.

Una txirula: hazla sonar y harás venir a todos los que quieras.

Un cuchillo: sácalo y matarás a todos los enemigos que quieras.

El chico marcha alegre con sus tres cosas. Vivía como quería y no tenía miedo de nadie. El mundo estaba asombrado con los milagros que hacía.

En aquel pueblo había un señor muy rico. Aquel señor perdía un carnero de su rebaño cada día. No sabía qué hacer. Coge a aquel chico como mozo y lo manda de pastor.

Cuando va al monte el pastor se queda dormido. Tras despertarse, habiendo casi oscurecido, toca la txirula y enseguida le viene el rebaño de carneros. Pero entre los carneros ve venir un dragón enorme. Inmediatamente saca el cuchillo y enseguida mató al dragón. Luego va a casa con su rebaño.

Por la tarde el señor cuenta los carneros y ve que no falta ninguno.

Al día siguiente, tras dormir todo el día, el pastor toca la txirula de la misma manera. También entonces le vienen todos los carneros, pero entre los carneros ve venir una serpiente mucho mayor que la de la víspera, con tres cabezas, la boca abierta. Inmediatamente saca el cuchillo y allí mismo mató al dragón. El pastor va a casa con todo su rebaño al completo.

El tercer día va al monte. Entonces, tras tocar la txirula escucha un ruido, como un estruendo. Ve bajar montaña abajo una especie de rueda de molino. Era el dragón enrollado llegando a su lado. Saca el cuchillo y mató a la serpiente inmediatamente. De su rebaño, sin embargo, faltaba uno. Mira hacia arriba y lo ve balando al lado de una gran cueva. Va allá y libera al carnero.

Al fondo de la cueva ve a una hermosa mujer leyendo. Se le acerca y mira qué libro tenía. Aquella hermosa mujer le dice que lea él también un poco. Empieza a leer y tras un momento la hermosa mujer se levanta y le dice:

—Hacía cien años que estaba aquí encantada por el dragón. ¡Alabado sea Dios! Ahora soy libre.

Aquella hermosa mujer era una prima de la casa donde estaba el chico. Fueron juntos a casa y al cabo de unos días se casaron.

*Contado por Pierre Ezpel, de Santa Grazi.  
Transcrito por el señor Constantin.*



Txiki.

Txülüla<sup>17</sup> bat: hori sona eta jin araziko dütükhantiala<sup>18-3</sup> nahi ditianak oro.

Nabela<sup>19</sup> bat: hori idoki<sup>20</sup> eta hire etsai nahi ditianak ehoren<sup>21</sup>dütük.

Muthikoa juaiten düzü<sup>5</sup> alagera bere hirur gaizeki<sup>22</sup>. Nahi zen bezala bizi züzün<sup>23</sup> eta ihuren ez züzün<sup>23</sup> lotsa. Harek egiten zütian<sup>24</sup> mirakuilez mundia<sup>2</sup> estonatürük<sup>25</sup> züzün<sup>2</sup>.

Herri hartan bazüzün<sup>23</sup> nagusi hanitx aberats zen bat. Nagusi harek galtzen zizün<sup>12</sup> bere saldotik<sup>26</sup> egün oroz ahari bat. Ez zakizün<sup>27</sup> zer egin. Muthiko hura hartzen dizü<sup>8</sup> mithil<sup>28</sup> eta igortzen<sup>29</sup> dizü<sup>8</sup> artzain.

Mendialat<sup>3</sup> juan denean artzaina jartzen düzü<sup>5</sup> lo. Iratzar ondoan, ülhüna<sup>30</sup> abantzü<sup>33</sup> beit zen, txülüla<sup>17</sup> joiten dizü eta hain sarri<sup>32</sup> ahari saldoa tarrapatatz jiten ziozü<sup>33</sup>. Bena aharien artean ikhusten dizüe jiten erentsüge ikharagarri bat. Nabela<sup>19</sup> idekiten<sup>20</sup> dizü<sup>8</sup> berhala eta erentsügea baratü<sup>34</sup> züzün<sup>23</sup> hain sarri<sup>32</sup> hilik. Gero etxerat juaiten düzü<sup>5</sup> bere saldoarekin<sup>26</sup>.

Arratsen nagusiak khuntatzen ditizü<sup>35</sup> ahariak eta ikhusten dizü<sup>8</sup> batere ez zela falta.

Biharamenean, egüna lo igan<sup>36</sup> ondoan, artzainak gisa berean joiten dizü<sup>8</sup> txülüla<sup>17</sup>. Ordian<sup>2</sup> ere ahariak oro jiten ziotzü<sup>37</sup>, bena aharien artean bezperako sügea beno hanitxex handiago bat, hirur bürüeki, ahoak zabaltürük, ikhusten dizü<sup>8</sup> jiten. Berhala nabela<sup>19</sup> zabaltzen dizü<sup>8</sup> eta erentsügea han berean hil züzün<sup>23</sup>. Artzain hori juaiten düzü<sup>5</sup> etxerat bere saldoa<sup>26</sup> osorik.

Hirurgarren egünean juaiten düzü mendialat<sup>3</sup>. Ordian<sup>2</sup> txülüla<sup>17</sup> jo undoan entzüten dizü<sup>8</sup> herots<sup>38</sup> bat, dürründa bezalako bat. Ikhusten dizü<sup>8</sup>, mendia behera jiten eiharria<sup>39</sup> bezalako bat. Hura züzün<sup>23</sup> erentsügea biribilkatürük jiten üngürüka<sup>40</sup>. Nabela idekiten<sup>20</sup> dizü<sup>8</sup> eta sügea hil züzün<sup>28</sup> berhala. Bere saldotik<sup>26</sup>, hati<sup>41</sup>, bat falta züzün<sup>23</sup>. So egiten dizü<sup>8</sup> gaineko aldealat<sup>3</sup> eta ikhusten dizü<sup>8</sup> ahana arphe<sup>42</sup> handi baten khantian<sup>2</sup> marrakaz. Juaiten düzü<sup>5</sup> hara eta ahana libratzen dizü<sup>8</sup>.

Arphearen zolan<sup>43</sup> ikhusten dizü<sup>8</sup> andere eder bat irakurten. Hüllantzen<sup>44</sup> ziozü<sup>33</sup> eta so egiten diozü<sup>9</sup> eia zer lübürü zian<sup>45</sup> Andere eder harek erraiten diozü<sup>9</sup> irakur dezan harek ere amiñi<sup>46</sup> bat. Hasten düzü<sup>5</sup> irakurten eta mement baten bürrian<sup>2</sup> andere ederrak jeiki eta erraiten diozu .

—Bazizün<sup>8</sup> ehün urthe heben<sup>47</sup> nintzala erentsügek inkantatürük. Jinkoa dela laidatü<sup>48</sup> orai libre nüzü<sup>49</sup>.

Andere eder hura züzün muthiko hura egoiten zen etxenko prima bat. Etxerat juan zütüzün<sup>1</sup> algarrekin eta zonbait egünen bürrian algarreki ezkuntü zütüzün<sup>1</sup>.

*Santa Garaziko Pierre Ezpel-ek kondatua.  
Constantin jaunak transkribatua.*

#### Hiztegia:

1 zütüzün: ziren (alok.); 2 -ia: -ua; 3 -ala(t): -ra(t); 4 dütüzü: dira (alok.); 5 düzü: da (alok.); 6 gainti: zehar; 7 batu: topatu; 8 dizü: du (alok.); 9 diozü: dio (alok.); 10 salak: sal itzak; 11 ediren: idoro, aurki(tu); 12 zizün: zuen (alok.); 13 thotzak: har itzak;

San Jorge  
como el caballero  
matador del  
dragón.  
Leyenda de  
Santos de  
W. Auer, 1890.



#### Notas:

Véase WEBSTER, «The seven-headed serpent»; CHAMBERS, «Jock et pipeaux»; EBILLOT, «La princesse aux pêches»; J. BARBIER, «Dafaila, astoa eta makila» in op. cit.

#### • Jean François Cerquand

Nuestra fuente: Ipar Euskal Herriko Legenda eta Ipuinak 1. Transcripción de Anuntxi Aranaren. Edit. Txertoa, pág. 58. Trad. J.A.

Fuente original: «Légendes et récits populaires du Pays Basque» n° 107 (IV) 1884-1885. In Bulletin de la Societé des Sciences, Lettres et Arts de Pau.

→ Ver Apéndice, pág. 430.

## El dragón

(R.M.A.)

### 300. El matadragones

En las inmediaciones de un hermoso pueblo en que vivía el rey había una gran sima y en ella se guarecía una tremenda serpiente de siete cabezas, por nombre dragón. Esta gran serpiente devoraba mucha gente. El pueblo hizo un contrato con el dragón: se le entregaría al año una muchacha con la condición de dejar en paz a los demás.

Todos los señores de las casas echaron a suertes para saber cuál de las muchachas habían de dar al dragón, y le correspondió a la hija del rey. Entonces el rey hizo saber en todo su reino que el que librase a su hija del dragón se casaría con ella y le haría heredero del reino.

Cuando llegó el día, ataron en un árbol a la hija del rey. Llevados de la curiosidad, subieron muchos a las ramas de los árboles de las inmediaciones. Sin embargo, ni uno solo aparecía sobre el suelo.

Poco antes de aparecer el dragón llegó a aquel lugar un pastor, teniendo a un perro a su lado. A la muchacha atada preguntole:

—¿Qué hace usted?

Y al saber de boca de la hija del rey lo que allí ocurría, se sentó detrás del árbol, teniendo junto a sí el perro.

En seguida apareció, con estrépito, el dragón. El pastor, entonces, le dijo a su perro:

—César, agárratele.

Y el perro se agarró a la gigantesca alimaña y la despedazó. El pastor soltó en seguida a la muchacha.

Bajaron los criados del rey que estaban en los árboles de las inmediaciones y vistieron con siete sayas a su joven



## Erensugea

(R.M.A.)

### 300. Herensuge-hiltzailea

Errege bizi zen-uri eder baten inguruan leze andi bat zen eta leze artan suge izugarri bat, zazpi buruko sugea, bere izenez erensugea, gordetzen zen. Yende andia iresten zuen sugetzar onek. Erriak erensugearekin kontratu bat (egiu-ne bat) egin zuen: urtean neskatxa bat izanen zuela, bertze yendeari parkatzekotz.

Zein neskatxa erensugeari emanen zitzaion yakiteko, zotzetara (suertetara) egin zuten etxeko yaun guziek eta erregeren alabari yaurri zitzaion. Erregek orduan bere erresuma osoan yakinarazi zuen, erensugearengandik bere alaba bizirik aterako zuena, berarekin ezkondu ta erregegai eginen zuela.

Eguna eldu zenean, Erregeren alaba zuamu batean estekatu zuten. Ikusgura aunitz inguruetakozugatzadarretara igan ziren. Bat ere etzen ordea lurraren ginean.

Erensugea agertu baino lentxeago, artzain bat, zakurra ondoan zuela, toki artara eldu zen. Neskatxa estekatuari: —¿Zer ari zara? —galde eginez.

Erregeren alabaren aotik ango berri izan zuenean, zugatz-gibelean eseri zen, zakurra ondoan zuela.

Erensugea burrunbaz bereala agertu zen. Artzainak orduan bere zakurrari:

—Zesar lot akio —erran zion.

Eta zakurra pistitzarrari lotu zitzaion eta zatikatu zuen. Neskatxa bereala askatu zuen artzainak.

Inguruetakozugatzetan ziren errege-mirabeak jautsi ta beren nagusi gaztea zazpi gonaz jauntzi zuten eta gizon

dueña, y un hombre cortó las siete cabezas del dragón y las llevó a casa en un gran saco.

Antes de meterlas aquél en el saco, el pastor arrancó la lengua a cada una de las cabezas, y también un pedacito a cada saya que tenía la señorita hija del rey.

Dio el rey un gran banquete, la comida de despedida de soltera. En la presidencia estaban sentados él (el rey), su hija y el prometido de la hija. Este novio era el que llevó las siete cabezas en el saco. Nadie, ningún cortesano del rey invitó a la comida al pastor.

Hacia el final, y sin que los demás se dieran cuenta, apareció también el pastor, acompañado del perro. Por tres veces mandó a su César en busca de un plato (comida).

La hija del rey se azoró al ver al perro, pues le conoció. El rey mandó a sus muchachos que atasen aquel perro, el que, para entonces, se había marchado adonde su amo, adonde el pastor. Entonces éste, levantándose, se presentó delante del rey diciendo estas palabras:

—Éste mi perro ha destruído al dragón. Por consiguiente, yo soy el que debo casarme con la hija del rey, conforme a su promesa.

Surgió un gran alboroto. El novio, que estaba sentado a la mesa, presentó las siete cabezas del dragón en una gran bandeja, diciendo:

—Yo lo he matado.

—Esas cabezas necesitan algo —le añadió el pastor—. He aquí las siete lenguas de esas cabezas, que las he tenido guardadas en los pedazos de las siete sayas de la muchacha.

El fue el esposo de la muchacha y el yerno y heredero del rey.

*J. Echarte, de Dancharinea (Ainoa).*

#### Nota:

La versión de Webster, en *Basque legends*, pág. 33, es muy linda y muy diferente de ésta, como también la que recogió Vinson en San Juan de Luz y publicó con el título de *Le triple serpent*.

#### • Resurrección María de Azkue

Nuestra fuente: *Euskalerrriaren Yakintza. Literatura popular del País Vasco*. Edit. Euskaltzaindia y Espasa Calpe, pág. 131.

### El dragón de Altzai

Le dragon d'Alçay  
(J.F.C.)

300. El matadragones

Al borde del bosque de Zuhurre hay un pastizal de montaña, llamado ladera de Azalegi, y hacia la mitad de él una gruta con simas.

Alguna vez los pastores de aquellos alrededores perdían ganado y no encontraban rastro en ningún lado. Un día, vieron una culebra, que era terrible, que había salido de la cueva, yendo a beber con la cabeza en el agua y la cola aún al lado de la gruta. Con el mismo aliento llevaba a las ovejas a la cueva y las comía enteras. ¿Qué había que (se podía) hacer?



gazte batek erensugearen zazpi buruak ebaki ta zorro andi batean etxera eraman zituen.

Zorroan sartuorduko, artzainak buru bakoitzari bere mima kendu zion eta andere erregeren alabak zituen gonai zatitxo bana ere bai.

Yan-edan aundi bat eman zuen erregek, ezta-aintzineko bazkaria. Maipuruan bera, errege, bere alaba ta alabaren senargaia zeuden yarriak. Zazpi buruak zorroan eraman zituena zen senargai au. Neork, erregeren ingurukok etzuen artzaina bazkaltiar izateko deitu.

Azken-aldean eta bertzen isilik, zakurra lagun zuela, agertu zen hura ere. Iru aldiz igorri zuen bere Zesar plater baten bila.

Aquél hizo según se le ordenó. Se lo trae a su casa. Pero el rey manda a su gente seguir a aquel perro olano al tercer día e invitar al dueño de éste a su mesa. Éste promete que irá el día siguiente. Se viste bien y no olvida llevar consigo los siete trozos de seda de la princesa con sus agujones.

Cuando se encontraban a la mesa llega un carbonero diciendo que había matado al dragón y venía a por la recompensa. Le piden que muestre las pruebas y éste les enseña las cabezas.

Nuestro joven (por su parte) enseña al mismo tiempo sus agujones y los trozos de ropa de la princesa. La princesa conocía bien al que había matado al dragón y la había salvado; y tan pronto como vio al carbonero dijo que no era aquél (su salvador).

Se casaron tal como el rey había prometido, celebrándolo con grandes fiestas. La princesa lo amó de veras pues era un apuesto joven y muy virtuoso. Frecuentaban la casa de Tártaro, y los jóvenes eran más ricos, aún, que el mismo rey.

Todo esto, yo lo vi, pero no me dieron nada a mí.

(*Mariño Amyot*). *Donibane Garazi*

#### • *Wentworth Webster*

Nuestra fuente: *Klasikoak* 57. Ipuinak II. Edición de Xipri Arbelbide. Edit. Kriselu, pág. 79.

Trad. K.U. y E.A.

Fuente original: «Le Folk-Lore Du Pays Basque», pág. 56 (ver también 150, 77).

Erregek erran arazten bere erresuma guzian suge hura hil duenak izanen duela haren alaba emaztetzat eta ematen ditu bazkari ederrak bere laguneri bere bozkarigua irakusteko eta egun hekietan egortzen du sugea hil zuen mutillak bere olanoetarikan bat erregeren etxerat, erraten zigoelarik ekhar zezala erregeren mahainean zen platetarik oberenetarikan bat.

Iten du erran bezala. Ekhartzen dio bere etxerat. Bañian erregek segi arazten du olano hura hirugarren egunean bere jendez eta konbida arazten du olano haren nausia bere mahaiñerat. Agintzen du biharamuneko. Ederki beztitzen da. Ez ditu ahanzten printzesaren zazpi arropa puskak bere eztenekin.

Mahaiñean zirelarik ikhazkin bat heldu da erraten duelarik hil duela sugea eta sariaren billa heldu dela. Erraten diote irakusteko frogak eta agertzen ditu burubak.

Gure mutikoak horrekin batean irakusten ditu eztenak eta printzesaren arropa puskak eta printzesak ederki ezautu zuen hil zuena eta salbatu; eta erran zuen ikazkiña ikhusi orduko ez zela hura.

Ezkondu ziren erregek erran bezela besta handiak iñez. Printzesak hañitz maite izan zuen mutil eder bat beitzen eta arras prestua. Gaten ziren Tartaruaren etxerat eta errege bera bañion aberatsago ziren gazteak.

Horiek guziak ikhusi nituen bañian ez ninduten niri deusikan eman.

(*Mariño Amyot*). *Donibane Garazi*

#### Hiztegia

1 nekazale; laborari; 2 gaztiatu; zigortu; 3 hemeki; poliki; 4 kusiñaria; sukaldaria; 5 olano; notatxo batek dioenaz, Tartaroen zerbitzuko diren alimaleak, zakurrak gizonentzat bezala. Bainan ikaragarriak; 6 zerbait falta da: zazpi arropa zeda beitzituen soiñian?; 7 trozatu: bildu.

#### • *Wentworth Webster*

Gure iturria: *Klasikoak* 57. Ipuinak II. Xipri Arbelbideren edizioa. Kriselu Argitaletxea, 79. or.

Jatorrizko iturria: «Le Folk-Lore Du Pays Basque», 56. or. (begiratu 150, 77 ere).





301B. QUEST FOR A VANISHED PRINCESS PRECEDED BY  
«THE STRONG MAN AND HIS COMPANIONS»

301B. BÚSQUEDA DE LA PRINCESA  
DESAPARECIDA, PRECEDIDO POR:  
EL HOMBRE FUERTE Y SUS COMPAÑEROS

Historia de Hartz-kume<sup>1</sup>

Histoire de hartz-kume  
(M.A.)



301B. Búsqueda de la princesa desaparecida, precedido por:  
El hombre fuerte y sus compañeros

Como muchos otros, había un marido y una mujer.  
Fueron a buscar madera. El hombre se subió encima de  
un árbol.

Le vino un oso. El oso se llevó a su mujer; la metió en  
una cueva.

Puso como puerta una piedra de cien quintales.

Aquella pobre mujer tuvo que hacer un niño.

Nació un hijo.

Cuando aquel hijo hizo cuatro años, le dijo a la madre:

—Madre, ¿no quieres ver lo de fuera?

—Niño, ¿de dónde vamos a ver nosotros lo de fuera?

—Es muy fácil, madre, eso...

Aquel niño pequeño agarra con la mano derecha la pie-  
dra de la entrada, y la echa a un lado.

La madre cogió una gran alegría, porque en aquellos cua-  
tro años no había visto lo de fuera.

—¡Niño, ahora estamos acabados; si llega el oso, nos ma-  
tará!

—Madre, no tengas miedo, iremos al (mismo) sitio de  
antes.

Aquel chiquillo agarra otra vez la piedra de la entrada, y  
la coloca, «zank», en su lugar y bajan al sitio de antes,  
presos.

El oso les trae allí su rancho, como de costumbre.

Al día siguiente, el hijo le dice a la madre:

—Madre, ¿no querías ir, escapándote, como antes, al  
sitio de antes?

—No sé, niño; tenemos un gran enemigo, si le encontra-  
mos en el camino, ¡nos matará!

—¡No tengas, no tengas miedo, madre!

Llegaron a su pueblo.

El párroco los acogió, diciendo que debía bautizar a aquel  
niño, y se puso él como padrino.

Lo puso en la escuela.

Los amigos empezaron a burlarse de él:

—Osezno, osezno y así...

Al final, el chico se enfadó: cogió a un compañero de las  
dos piernas, y, con aquél, les dio a todos los demás una  
buena tunda.

301B. DESAGERTUTAKO PRINTZESAREN  
BILAKETA, BAINA AURRETIK: GIZON  
INDARTSUA ETA HAREN LAGUNAK

Hartz-kumeren ixtorioa

Histoire de hartz-kume  
(M.A.)

301B. Desagertutako printzesaren bilaketa, baina aurretik:  
gizon indartsua eta haren lagunak

Asko bezala, baziren senar emazte batzuek.

Gan ziren egur ketarat\*. Gizona igan zen haritz baten  
gainerat.

Etorri zitzaion hartz bat. Andria ereman zion hartzak;  
sartu zuen leze batian.

Eman zuen atekatzat ehun kintaleko harri bat.

Emazte gaixo hura haur egin beharra gertatu zen.

Sortu zen seme bat.

Seme harek lau urte egin zituelarik, erran zion amari:

—Ama, ez duzu nahi kanpoa ikusi?

—Haurra, nondik ikusiko diagu kanpoa, guk?

—Arras errexa da, ama, hori ...

Hartz du eskuineko eskuaz portaleko harria haur ttiki  
harek, eta botatzen du bazterrenat.

Amak hartu zuen atsegin bat izigarria, lau urte hartan ez  
baitzuen kanpoa ikusi.

—Haurra, akabo gaituk, orai; heldu balinbada hartza, gar-  
bituko gai' ik!

—Ama, ez izan beldurrik goanen gare lehengo lekurat.

Muttiko harek hartz du berriz ere portaleko harria, eta  
ematen du «zank», bere tokian eta jausten dire lehengo  
tokirat preso.

Hartzak ekartzen diote, harat, beren rantxoa, usaian be-  
zala.

Biharamunean, semeak erraten dio amari:

—Ama, etzinuke gan nahi ezpala keta, lehen bezala, le-  
hengo tokirat?

—Etzakiat, haurra; etsaia tzarra diagu, bidean atxematen  
badiau, garbituko gaitik!

—Etzazun, etzazun beldurrik, ama!!!

Heldu diren beren herrirat.

Erretorak hartu zituen, erranez behar zuela haur hura  
bataiatu eta, bera jarri zen aitautxi.

Ezarri zuen eskoletan.

Hasi zitzaizkon lagunak trufaka:

—Hartz-kumea, hartz-kumea, eta hola...

Azkenean, muttikoa asarretu zen: hartu zuen lagun bat  
bi zangoetarik, eta, harekin, bertze guzieren eman zioten  
zafra aldi bat ona.

Le dijo al padrino luego:

—Tengo que irme de este lugar. Tengo que aprender qué es el miedo.

El padrino le respondió:

—¡Yo te enseñaré (qué es) el miedo!

El padrino llenó un baúl de palomas:

—Allí hay una servilleta con flores a los dos lados, o pompones; tráemela de aquella caja.

En el momento en que abrió el baúl, al chico le salieron las palomas, «brau», de los lados, a la cara.

Se aturdió un poco, y fue adonde el padrino.

El padrino le preguntó:

—¿Te has asustado?

—Me he aturrido un poco, pero nada más.

Otra vez, el padre le hizo seguir (ir) a la escuela.

Al final, no le dejaba (en) paz, que debía irse, que no había aprendido suficientemente (qué es) el miedo, y que debía irse.

Le dice el padrino:

—Te tengo que hacer pues un regalo; ¡a ver, qué deseo tienes, dime!

—Quiero una vara de hierro.

Le trajo la vara de hierro; y entre dos dedos, «crisc», se la rompió.

—¿Qué tienes, padrino?; ¿ésa es la suerte de vara que tienes para regalarme a mí?

—Ve tú mismo al herrero; manda hacerla como te convenga; yo la pagaré.

Reuniendo todos los hierrazos enormes, han hecho la vara, (de) cien quintales.

Cogió su vara y le dijo adiós al padrino, y que (ya) aparecería en días posteriores.

Cuando estaba atravesando un gran hayedo, se encontró con un hombre que estaba talando hayas.

Le preguntó Hartz-kume:

—¿Para qué es esa madera?

—Me ha mandado la madre, en busca de una carga de madera.

Cogió un haya entera a la espalda, talada desde el pie.

Hartz-kume se dijo para sí:

—¡Yo ya soy, pues (extraordinario)! ¡Pero, cuidado, que ése también tiene algo de eso!

Habiendo llevado la carga de hayas a la madre, se fueron los dos.

Iban los dos juntos, y se encontraron con un molinero a la puerta de su molino.

Metida su rueda de molino por el agujero de en medio en su muñeca, allí iba «brrr» girándola, vuelta y vuelta, en el aire; y dijeron nuestro Hartz-kume y el talador de hayas:

—¡Nosotros ya somos, pues (extraordinarios)!, pero, cuidado, que éste también ya es algo (fuera de serie)!

Aitautxiri erran zion gero:

—Gan behar dut leku huntarik. Behar dut beldurtasuna zer den ikasi.

Aitautxik ihardetsi zion:

—Nik irakutsiko darotzut beldurtasuna!

Aitautxi horrek bete zuen kutxa bat usoz:

—Han baduk zerbienta bat, bi aldetan loriarekin, edo punpunekin; ekarrazu kutxia hartarik.

Kutxa ideki zuen denboran, mutikoari atera zitzaizkon usoak «brau», aldetarik, bisaiaiat.

Durditu zen pitta bat, eta gan zen aitautxiren ganat.

Aitautxik galdetu zion:

—Izitu zare?

—Durditu naiz pixka bat, bainan, deusik ez.

Berritz ere, aitautxik segituarazi zion eskolarat.

Azkenean, etzion bakerik uzten, gan behar zuela, etzuela aski beldurtasuna ikasten, eta, gan behar zuela.

Erraten dio aitautxik:

—Egin behar haut bada present bat; eian zeren gutizia dukan, errak!

—Makil bat nahi dut, burdinezkoa.

Makila ekarri zion burdinezkoa; eta, bi errien tartean «krixk», hautsi zion.

—Zer duzu, aitautxi; hori duzu niri present egiteko makil suertia?

—Zoazi zeroni harotzerat; komeni duzun gisa eginaraz zazu; nik, pagatuko dut.

Egundainoko burdin tzar guziak bilduz, egin izan dute makila, ehun kintal.

Bere makila hartu eta, aitautxiri adio erran zion, ondoko egunetan agertuko zela.

Fagoadi handi batean trebesatzen zenean, atxeman zuen gizon bat, fago pikatzen hari zena.

Galdetu zion hartz-kume harek:

—Zertako duk egur hori?

—Amak igorria naik, zama bat egurren bila.

Fago ondo bat osorik hartu zuen bizkarrean, ipurditik pikatuta.

Hartz-kume horrek egin zuen bere buruari:

—Ni banauk, baina baduk haatik hori ere!

Fago zama amari ereman eta, partitu ziren biak.

Bazoazin elkarrekin zozioan, eta atxeman zuten errota zain bat, bere errotako atian.

Bere errota harria, erdiko xilotik, esku-muturrean sarturik, bazailan «brrr» birindaka, itzul eta itzul, airean; eta, egin zuten, gure Hartz-kumeak eta fago pikatzaileak:

—Gu bagaituk, bainan baduk haatik, hau ere zerbeit!!!

—¿Adónde vais? —le preguntó el molinero.  
 —A aprender (qué es) el miedo. —le dieron por respuesta los dos hombres.  
 —Yo también vendría (iría) con vosotros, si me queréis.

Los tres partieron juntos. Encontraron un palacio. Entraron en aquel palacio y, viéndolo vacío, allí cogieron de comer y beber lo que quisieron, de todo en abundancia. Había armas. Hicieron los tres hombres un sorteo (echaron a suertes), (para ver) quién se quedaba ahí para preparar las comidas, para que los otros fueran a cazar.

El talador de hayas cayó (le tocó) primero para preparar las comidas. Le llega, a las once y media, un hombre viejo, (pidiéndole) que le dé de comer. Da una paliza a aquel pobre viejo; que no, que ya tenía más necesitados que él, (dijo) el talador de hayas. Aquel viejo le da su merecido, le da una paliza, destroza al talador de hayas.

Los otros le vinieron a comer, y el talador de hayas había ido a la cama, destrozado. Hartz-kume le fue a ver.  
 —Qué tienes, qué tienes —le preguntaba.  
 —Estoy dolorido.  
 —No te asustes, no —dice entonces Hartz-kume— yo prepararé la comida.  
 Y enseguida preparó Hartz-kume la comida.

Al día siguiente, otra vez Hartz-kume y el molinero hicieron el sorteo, (para ver) quién tendría que estar para preparar la comida. La suerte le cayó al molinero. El talador de hayas le dijo a Hartz-kume:  
 —Tenemos que volver ahora mismo a casa, a las diez y media. Descubriremos ahora cómo pega el viejo. El viejo le vino entretanto al molinero, y, como la víspera, pidió de comer; y el otro, que no, que ya tenía más necesitados que él; y dio una paliza al viejo. Pero aquél (a su vez al molinero) le dio su merecido, y para cuando llegaron el talador de hayas y Hartz-kume, estaba apaleado.

El tercer día, no tuvieron trabajo en hacer el sorteo, Hartz-kume se quedó solo, como era justo. Los dos amigos no le confesaban qué les pasó; pero pensaba acertadamente que había ahí algún enredo, viendo a sus amigos apaleados de esa manera. Puso su vara de cien quintales en el sitio de la cocina. Le vino pronto, como a los demás, aquel viejo mendigo, y lo partió de un golpe de vara. Luego, lo hizo cuatro pedazos, y lo echó por la ventana pequeña de la cocina. Para cuando los otros llegaron, tenía la comida, —esto qué es—, perfectamente preparada.

—Nora zoazte? —galdetu zien errota zainak.  
 —Beldurtasunaren ikasterat —eman zioten errepusta, bi gizonek.  
 —Ni ere etor ninduket zuenkin, nahi banauzue.

Hiruak partitu ziren elkarrekin. Atxeman zuten xato\* bat. Xato hartan sartu eta, hutsa ikusirik, han atxeman zuten jan, edan nahi zutena, denetarik ausarki. Baziren armak. Egin zuten hiru gizonek xortea, zein hor geldi, jatekoen prestatzeko, bertzeak ihizirat goateko.

Fago pikatzailea erori zen lehenik jatekoak prestatzeko. Heldu zaio, amekak eterdietan, gizon xahar bat, emateko jaterat. Pobre xahar hura zafratzen du, ezetz, hura baino presatuagorik bazuela, fago pikatzaileak. Gizon xahar harek ordaina ematen dio, zafratzen du, porrokatzen du fago pikatzailea.

Bertzeak etorri zitzaizkon bazkaltzerat, eta fago pikatzailea ogerat goana, porrokatua. Hartz-kume gan zitzaion ikusterat.  
 —Zer duk, zer duk —galdetzen zion.  
 —Minez niok.  
 —Ez izi, ez, —dio oraino Hartz-kumeak— nik prestatuko diat jatekoa.  
 Eta Harz-kumeak berehala prestatu zuen jatekoa.

Biharamunean, berritz ere Hartz-kumeak eta errota zainak egin zuten xortea, zeinek egon beharko zuen jatekoen prestatzeko. Errota zainari erori zen xortea. Fago pikatzaileak erran zion Hartz-kumeari:  
 —Etorri behar diau oraintxe etxerat, hamarrak eterdietan. Atxemanen diau orai nola jotzen duen gizon xaharrak. Gizon xaharra tartean etorri zitzaion errota zainari, eta, bezperan bezala, galdetu zuen jaterat; eta bertzeak, ezetz, bazuela hura baino presatugoorik; eta, gizon xaharra zafratu zuen. Bainan, harek eman zion ordaina, eta fago pikatzailea eta Hartz-kumea etorri orduko, umatua zen.

Hirugarren egunean, etzuten xortea egiteko lanik, Hartz-ku-mea bere baitatik gelditu zen, zuzen zen bezala. Etzioten bere bi lagunak aitortzen zer gertatu zitzaioten; bainan, ongi pentsatzen zuen bazela hor zerbeit matrikulu, bere lagunak hola joak ikusita. Ezarri zuen bere ehun kintaleko makila, sukalde lekuan. Etorri zitzaion laster, bertzeri bezala, eskezaile zahar hura, eta makil ukaldi batez porrokatu zuen. Gero, lau puska egin zuen, eta sukaldeko leiho ttikitik, bota zuen. Bertzeak etorri orduko bazkaria «hau zer da» gain gainean, prestatua zuen.

Mientras comían les dijo:

—Sois amigos fiables, les dijo. Mirad por esa ventana, donde se encuentra vuestro compañero de ayer.

Tenemos que ir adelante; todavía no hemos aprendido lo suficiente,(qué es) el miedo.

Iban y encontraron una cueva.

Hartz-kume les dijo:

—Tenemos que ver qué hay dentro de esta cueva.

Hizo un cesto torciendo árboles (antes eran así para recoger las manzanas... ahora no habrá muchos, claro).

Torciendo las ramas hizo las cuerdas de la polea para bajar por la cueva abajo.

Entró el propio Hartz-kume en la cueva abajo, con su vara de cien quintales, mientras el talador de hayas y el molinero agarraban las ramas desde arriba.

En el momento en que entró abajo, encontró allí a una vieja.

Hartz-kume le preguntó qué paraje era aquél.

La vieja le respondió que no había entrado allí ningún católico en todos aquellos años, y que había trece habitaciones.

Hartz-kume tocó una puerta y tocó otra, (y) destrozan-do todas las entradas, entró dentro.

En la habitación trece, encontró a dos hijas del rey, que le dijeron que hacía ya ocho años que estaban allí presas, llevadas por el demonio.

Una de aquellas muchachas tenía una pelota de oro, y cada una tenía, en el cuerpo, siete vestidos; y, cortando con tijeras, le dieron a Hartz-kume un trozo de cada uno de los siete vestidos, como señal para luego.

Hartz-kume trajo a las dos muchachas hasta la boca de la cueva, y les movía el cesto (la cuerda) a los de arriba, para que subieran el cesto con él dentro.

Mandó a una de aquellas muchachas arriba, dentro del cesto.

Cuando la muchacha llegó arriba, el molinero y el talador de hayas comenzaron la disputa; que uno tenía que tener a aquella muchacha y que el otro la quería; y empezaron a golpes, y no podían dominar el uno al otro.

El otro les movía siempre el cesto desde la cueva, para subir también a la otra.

Les mandó la segunda (muchacha); y entonces hicieron las paces, (pues) cada uno tendría la suya.

Y desde abajo, Hartz-kume seguía (*siempre estaba*) moviendo el cesto, queriendo venir (ir) arriba él mismo.

Cuando empezó a ir el cesto hacia arriba, libraron, «dank», el cesto otra vez hacia abajo, y Hartz-kume cayó violentamente en el agujero, y se golpeó.

A aquella vieja que vio al entrar le dijo que lo sacara pronto de allí, que si no allí mismo la mataba.

La vieja lo sacó enseguida de la cueva.

Bazkaldu zuten denboran:

—Lagun fidabliak, zauzte, —erran zien. Beha zazue leiho hortarik, zuen atzoko partidari, non dagon.

Gan behar diau aintzinat; ez diau beldurtasunik aski ikasi oraino.

Bazoazin eta atxeman zuten leze bat.

Harz-kumeak erran zioten:

—Behar diau ikusi eian leze hunen barnean zer dagon.

Egin zuen otarre bat arbolak bihurtuz (lehen holakoak izaten ziren sagarrak biltzeko... orai ez da naski ainitz).

Bilurrak bihurtuz egin zituen polearen sokak, lezean beiti, jausteko.

Bera sartu zen Hartz-kumea lezean beiti, bere ehun kintaleko makilarekin, fago pikatzaileak eta errota zainak, gainetik otarrearen bilurrak atxikiz.

Beiti sartu zen denboran, han atxeman zuen atxo bat.

Galdetu zion Hartz-kumeak, zer paraje zen hura.

Atxoak erreputa, katolikorik etzela sartu han horrenbertze urte hartan, eta bazirela hamahiru ganbara.

Hartz-kume harek ate bat jo eta bertzea jo, portale guziak kraskatuz, hautsiz, sartu zen barnerat.

Hamahirugarren ganbaran, atxeman zituen erregearen bi alaba, erraten ziotelarik bazirela zortzi urte han zirela preso, debruak eremanak.

Neskatxa horietarik batek, bazuen urrezko pilota bat, eta bakotxak bazituzten, soinean, zazpi soina; eta, axturrez pikatu'ta, eman ziozkaten zazpi soinetarik puxka bat Hartz-kumeari geroko seinaleztat.

Hartz-kumeak ekarri zituen bi neskatxak lezearen ahorat, eta otarria higitzen zioten gainekoari, otarria ijo zezaten bera barnean.

Igorri zuen neskatxa hetarik bat goiti, otarrearen barnean. Neskata goiti heldu zenean, errota zainak eta fago moztaileak hasi zuten disputa, batek behar zuela neskatxa hori eta bertzeak nahi zuela; eta, hasi ziren kolpeka, eta elkar ezin zuten bentzu.

Bertzeak, lezetik higitzen zioten beti otarria, bertzea ere igortzeko.

Igorri zioten bigarrena; eta, orduan baketu zien, bakotxak izanen zuela berea.

Eta, beheretik, beti hari zen otarria higika, Hartz-kumeak berak goiti etorri nahi.

Abiatu zenean otarria goiti, libratu zuten «dank» otarria berritz beiti, eta erori zen Hartz-kumea, finki, leze zilarat, eta kolpatu zen.

Sartzean ikusi zuen atxo hari, erran zion atera zezala laster handik, bertzenaz han berean garbitzen zuela.

Atxoak atera zuen bereala lezetik.

En aquel intervalo, el molinero y el talador de hayas llegaron a la ciudad, con las dos muchachas, a casa del rey. Le dijeron al rey que ellos habían sacado a sus hijas, de aquella cueva; y las hijas dijeron que no, que había otro, y que las sacó aquél otro.

Aun y todo, el padre, pues aquéllos le trajeron a sus hijas, quería dárselas por esposas; y, el día en que se casaron, llegó Hartz-kume.

Puso su vara de cien quintales en medio de la plaza.

Empezó a jugar a pelota en la plaza, con la pelota de oro dada por la muchacha.

Esa noticia le fue (llegó) al rey, al lugar donde estaba comiendo.

Entonces se levantaron sus dos hijas:

—¡Ay, padre, ése es el que nos ha sacado (librado) a nosotras del diablo!

Querían ir adonde él: pero el padre las hizo parar; que ya lo haría traer allí.

Mandó a seis hombres en su busca, le dijeron a Hartz-kume que de parte del rey viniera (fuera) donde él.

Hartz-kume:

—Que bastaba con que viniera aquél, si quería hablarle.

Los soldados le hostigaron (diciéndole) que si no quería ir a las buenas, le harían ir a la fuerza.

Hartz-kume les dijo:

—A la fuerza, no es cosa buena conmigo.

Le agarraron los soldados, y (él) con un golpe de vara mató a cinco, y el sexto, debilitado, fue al rey a darle la respuesta de Hartz-kume.

Le dijo al rey:

—A nosotros, nos has enviado a seis, pero si envías a doce, como nosotros hemos venido vendrán aquéllos también.

Entonces, sus dos hijas saltaron de la mesa: que era aquél, aquél, el que de verdad las había salvado.

Las hijas por delante y el padre detrás, fueron entonces a donde Hartz-kume, y las dos empezaron a abrazarle.

Hartz-kume devolvió al rey los trozos de los vestidos y la pelota de oro de sus dos hijas.

El talador de hayas y el molinero fueron condenados a diez años, pues hablaron en falso.

Hartz-kume pasó su tiempo, en casa del rey, con sus dos hijas como si fueran hermanas.

Si no es así, que así suceda.

*Contado por Josepe Amorena de Sara,  
a los 80 años, en 1923.*

(N. del T.): 1 *Hartz-kume*: cría de oso (osezno).

#### • *Mayi Ariztia*

Nuestra fuente: Amattoren Uzta. La Moisson de grand'mere.

Edit. Elkar, pág. 72.

Trad. J.A.

Tarte hartan, errota zaina eta fago pikatzailea ailiatu zien hirirat, bi neskatxekin, erregearen etxerat.

Erregeari erran zioten hek ateraiak zirela haren alabak leze hartarik; eta alabek erran zuten ezetz, bazela bertze bat, eta harek atera zituela.

Halere, aitak, nola hek ekarri baitzizkaten bere alabak, eman nahi izan ziozkaten espostzat; eta, espos ziren egunean, ailiatu zen Hartz-kumea.

Bere ehun kintaleko makila eman zuen plazaren erdian. Hasi zen neskatxak emanikako urre pilotarekin, pilotan, plazan.

Berri hori goan zitzaion erregeari, bazkaiten ari zen lekurat.

Orduan altxatu zitzaizkon bere bi alabak:

—Ai, aita, hori da debruari gu atera gaituena!

Goan nahi zuten haren ganat: bainan, aitak geldiarazi zituen, ekarraraziko zuela horrat.

Igorri zituen sei gizon bila, erran zioten Hartz-kumeari erregearen partez haren ganat etortzeko.

Hartz-kumeak:

—Aski zuela berak etortzea haren ganat, nahi balinbazuen harekin mintzatu.

Soldadoek jazarri zioten ez balinbazuen amodioz etorri nahi, goanen zutela bortxaz.

Hartz-kumeak erran zioten:

—Bortxaz geroz, ez duk gauz onik nerekin.

Lotu zitzaizkon soldadoak, eta makil ukaldi batez, hil zituen bortx, eta seigarrena, erbaildurik, goan zen erregeari Hartz-kumearen erreputaren ematerat.

Erregeari erran zion:

—Gu, igorri gaitutzu sei, bainan igortzen balinbaitutzu hamabi, gu etorri garen bezala, etorriko dire heiek ere.

Orduan, bere bi alabak saltatu zitzaizkon mainetik, hura zela, hura, egiazki hek salbatu zituena.

Alabak aintzinean eta aita ondotik, goan ziren orduan Hartz-kumearen ganat, eta biak lotu zitzaizkon besatraka.

Aitari Hartz-kumeak turnatu ziozkan bere bi alaben soinen puxkak eta urre pilota.

Fago pikatzailea eta errota zaina kondenatuak izan ziren hamar urterentzat, zeren faltsian mintzatu ziren.

Hartz-kumeak bere denbora pasatu zuen, anai arrebak balietz bezala, erregearen etxean, haren bi alabekin.

Eta hala ez bada, hala gerta dadiela.

*Josepe Amorena Saratarrak  
errana 80 urtetan, 1923-an.*

**Hiztegia**

ketarat: bila; xato: jauregi

#### • *Mayi Ariztia*

Gure iturria: Amattoren Uzta. La Moisson de grand'mere. Elkar Argitaletxea, 72. or.

**Malbruk(1)**Malbrouk  
(W.W.)

301B. Búsqueda de la princesa desaparecida, precedido por:  
El hombre fuerte y sus compañeros

(Este cuento también pertenece al tipo 327. Los niños y el ogro)

Como muchos otros en el mundo, eran un hombre y una mujer. Estaban cargados de hijos y eran muy pobres. El marido iba todos los días al bosque a hacer leña para la familia. Tenía a la mujer en estado de buena esperanza ya crecida.

Un día que estaba en el bosque se le ha acercado un señor y le dice:

—¿Qué hace amigo?

—Leña, para mantener a la familia.

—Entonces, sois muy pobres.

—!Pues, sí;

Si me quisieras hacer padrino, según vuestras costumbres, de tu primer hijo, te podría dar mucho dinero.

Le dice que sí, que lo hará. Le da mucho dinero. Llega a casa. La mujer pare enseguida y estaban sin saber cómo avisar al joven padrino, pues no sabían dónde solía estar. Él mismo aparece de alguna parte. Van a la iglesia y le pone por nombre Malbruk (como se llamaba él mismo). Cuando llegaron a casa, el padrino les desaparece con su hijo. El padre y la madre estaban apenados a pesar de tener muchos niños. Pero con el tiempo les disminuyó la pena.

Malbruk fue a su (nueva) casa. La mujer era bruja. Tenían tres hijas. Malbruk el pequeño, creció mucho enseguida. Para los siete años era tan grande como un hombre.

Su padrino le dice:

—¿Tú querías ir a tu casa?

Él le responde:

—¿No estoy aquí en mi casa?

Le dice que no, y que si quiere, ya tiene tres días para (ir) allá.

—Tú vete a tal (cierto) monte, y la primera casa que desde allí veas, será (ésa, la tuya).

Va al monte. Ve la casa y va . Encuentra en ella a dos de sus hermanos partiendo leña delante de la puerta. Les dice que es hermano de ellos. No querían creerle. Le hacen entrar y les dice a su padre y a su madre que (él) es Malbruk. Se extrañaron que para los siete años fuera semejante hombre.

Pasaron los tres días encantados, y les dice a sus hermanos que en casa de su padrino quizá habría sitio también para ellos, y que debían ir con él. Van pues los tres.

Cuando llegan la bruja no estaba nada contenta.

Y le dice a su marido:

—No sé, si estos tres hombres no nos harán algo. No me fío nada y tenemos que matarlos.

**Malbruk(1)**Malbrouk  
(W.W.)

301B. Desagertutako printzesaren bilaketa, baina aurretik:  
gizon indartsua eta haren lagunak

(Ipuin hau, 327. Haurrak eta ogroa motan ere sailkatzen da)

Asko munduan bezala baziren jaun andre batzuek. Haurrez kargatuak ziren eta arras pobreak. Senharra gaten zen egun guzietan oihanerat egurketa bere familiarentzat. Emaztea esperantzetan handitua zuen.

Oihanian zelarikan egun batez heldu zaio jaun bat eta erraten dio:

—Zer ari zare adiskidia?

—Egur iten familiaren azteko.

—Pobreak zarezte beraz arras?

—Ba, bai!

—Nahi baninduzu zure lehenbiziko haurraren aitabitxi in zuen legian<sup>1</sup>, eman zintzaketa dirua franko.

Erraten dio baietz, inen duela. Ematen dio diru hañitz. Heldu da etxerat. Emaztea erditzen da laster eta bazagozin ez jakinez nohat gaztia<sup>2</sup> aitabitxiri, ez beitzakiten non egoten zen. Bera nonbeitikan agertzen da. Badohazi elizarat eta ematen dio izena Malbruk. Heldu zirelarik etxerat suntsitzen<sup>3</sup> zaiote aitabitxi bere haurrarekin. Aita eta ama peñetan ziren nahiz bazuten haur hañitz. Bañian denborarekin istu<sup>4</sup> zitzaieten pena.

Malbruk gan zen bere etxerat. Emaztea sorgiña zuen. Bazituzten hiru alaba. Malbruk txikia handitu zen fite hañitz. Zazpi urtetako gizon bat bezin handi zen. Erraten dio bere aitabitxik:

—Nahi huke gan hire etxerat?

Erraten dio:

—Ez naiz hemen nere etxean?

Erraten dio ezetz eta nahi badu baduakela hiru egunentzat harat.

—Hua holako menditarat eta handikan ikhusten dukan lehenbiziko etxea izanen duk.

Badoha mendirat. Ikhusten du etxea eta badoha. Atzematzen ditu bere bi anaia athe gañean egur xehatzen hari direla. Erraten diote hekien anaia dela. Ez zuten nahi sine-tsi. Sar arazten dute barnerat eta erraten du bere aita eta amari Malbruk dela. Arrituak dire halako gizon izatia zazpi urthetako.

Lorietan pasatu zituzten hiru egunak eta erraten diote bere anaieri balitakela tokia haren aitabitxiren etxean hekienez ere eta gan behar dutela harekin. Badohazi beraz hiruak.

Arribatu diren sorgiña ez zen batere kontent. Erraten dio senharrari:

—Ez dakiat nik hiru gizon hoikiek zerbeit inen geituzten. Ez nuk fida batere eta behar ditiagu hil.

Malbruk (padre) no lo quería, pero como la bruja no lo dejaba en paz, le dice que los matará dentro de tres días.

¿Qué es lo que hace Malbruk el pequeño? Por la noche las hijas de estos solían llevar una corona en la cabeza, y Malbruk el pequeño y sus hermanos llevaban unos gorros. Malbruk el pequeño les dice (a ellas) que tienen que hacer el cambio; que ahora es el turno de tener (ellos) las coronas. Las chicas, igual de contentas, se las dan.

Una noche va Malbruk (padre). Tocó las cabezas y vió (notó) que tenían los gorros y mata a las tres. Malbruk el pequeño ve eso y les hace despertar a sus hermanos. Coge las botas de su padrino, que recorren siete leguas. Coge a sus hermanos a la espalda, y ahí se van, van, van, van (*ir, ir, ir*).

La bruja le dice a Malbruk:

—¿Has tenido, tú, buen cuidado de quién has matado? No estoy nada tranquila, no sea que hayas hecho tú alguna burrada.

Va la bruja y ve a sus tres hijas muertas. Monta en cólera, pero ya no había remedio.

\* \* \*

Malbruk y sus hermanos llegan a un reino, y ven que todos estaban tristes. Preguntan qué es (qué ocurre). Les informan que el rey ha perdido a sus tres hijas, y no las pueden encontrar. Dice Malbruk:

—Yo podría encontrarlas.

Le dicen eso al rey. Enseguida los hace llegar a su presencia, y a él también le dice que las encontrará.

Parten los tres. Cuando han andado un buen trecho, encuentran una vieja. Les dice:

—¿A dónde vais así?

—A buscar a las tres hijas del rey.

Aquella anciana les dice:

—Id a donde el rey y pedidle trescientas brazas de cuerda nueva, un balde y una campanilla.

Van, y el rey les da enseguida lo que pedían. Van donde la anciana, y aquella vieja les dice que (ellas) estaban en aquel pozo(2).

Se coloca el mayor en el balde (de madera) y les dice que en cuanto se asuste tocará la campanilla. Cuando ha entrado, sólo un poco, se asusta y la toca. Lo traen arriba.

Va el segundo y cuando llega algo más adentro (que el anterior), la toca, pues aquel también se asustaba. Entra pues Malbruk y les dice:

—Cuando yo tire al balde hacía abajo, entonces lo subís arriba.

Baja y, en una de estas, ve que allí, en aquel subterráneo, hay una hermosa casa, y ve que hay una mujer joven hermosa con una gran serpiente dormida en su regazo. En cuanto ve a Malbruk, le dice:

—Márchate de aquí, te lo ruego, no dormiré (la serpiente) más de tres cuartos de hora y si se despierta, tu y yo estaremos perdidos (¡la habremos hecho!).

Malbrukek ez zuen nahi bañian sorgiñak ez beitzioen bake-rik ematen, erraten dio hiru egunen buruan hillen dituela.

Zer egiten du Malbruk txikiak? Arratsetan hekien alabek ematen zuten buruan koruak eta Malbruk txikiak eta bere anaiek samuak<sup>5</sup>. Malbruk txikiak? erraten diote behar dutela egin trukada. Hekien sanja<sup>6</sup> dela orai koruak izateko. Neskak igual kontent, ematen diozkate.

Gau batez badoha beraz Malbruk. Buruak ukitu eta ikhusi zuen samuak zituztela eta hiltzen ditu hiruak. Malbruk txikiak hori ikhusi eta atzar arazten ditu bere anaiak. Hartzen ditu bere aitabitxiren zazpi leku<sup>6b</sup> egiten zituzten botak. Bere anaiak hartzen ditu bere espalda gañetan eta badohazi gan, gan, gan.

Sorgiñak erraten dio Malbroki:

—Eman duk ungi kontu nor hil dukan. Ez nauk batere trunkil zerbeit astokeria in othe dukan.

Badoha sorgiña eta ikhusten ditu bere hiru alabak hillak. Kolera gorrian zen eta ez zen erremediorik<sup>7</sup>.

\* \* \*

Malbruk eta bere anaiak arribatzen dire erregeren toki baterat eta ikhusten dute denak triste zirela. Galdetzen dute zer den. Erraten diote erregek bere hiru alabak galdu dituela eta nihon ezin kausi detzala. Erraten du Malbrukek:

—Nik atzeman netzake.

Erraten diote hori erregeri. Laster ereman arazten ditu bere aintzinerat eta erraten diote hari ere atzemanen dituela.

Partitzen dire hiruak. In dutenian bide puska bat, atzematzen dute atxo xahar bat. Erraten diote:

—Norat zoazte hola?

—Erregeren hiru alaben atzematerat.

Erraten diote emazteki xahar harek:

—Zoazte erregerenganat eta galde zozube hiru ehun braza<sup>8</sup> soka berri, pusader<sup>9</sup> bat eta xilintxa<sup>10</sup> bat.

Badohazi eta ematen diote erregek berehala galdetzen zutena. Badohazi emazteki xahar harenganat eta erraten diote atxo harek putzu hartan direla(2).

Ematen da zaharrena pusadaren barnean eta erraten diote izitzen denian joko duela xilintxa. Barnaxko gan denian izitu eta jotzen du. Ekhartzen dute goiti.

Bigarrena badoha eta barnaxago gan eta jotzen du harek ere izitzen beitzen. Sartzen da beraz Malbruk eta erraten diote:

—Nik tiratzen dutenian beheiti pusadera, orduan altxatuko duzube goiti.

Jausten da beraz eta ikhusten du noizpeit lur azpi hartan badela etxe eder bat eta ikhusten du andre gazte eder bat dagoela, suge handi bat lo altzuan. Ikhusten duenian Malbruk, erraten dio:

—Zoazi othoi hemendik, ez du hiru oren laurden berzerik iñen lo eta atzartzen bada, zu eta ni iñak izanen gare.

## El viaje del héroe

Situación de necesidad en la casa de partida del héroe



### Muchos hijos

Había un hombre y una mujer muy pobres y cargados de hijos. Tenían siete chicos.

### Seme-alaba asko

Baziren jaun andre batzuek arras pobreak eta haurrez kargatuak. Bazituzten zazpi mutil.

La situación familiar empuja al héroe a iniciar un viaje buscando fortuna.

Heroia, fortunaren bila irtetzera etxeko egoerak bultzatzen du.



### En busca de fortuna

Un día le dijo a su madre que le sería mejor probar ir a alguna parte a ver si le resultaba mejor. Que no le era posible continuar de ese modo. Que tenía pena viendo cuánto le costaba criarle.

### Fortunaren bila

Erran zioen egun batez bere amari obe zuela entseiatu noapeit gatea, iyan obekiago atheratuko zen. Ez zuela hala posible irautia. Pena zuela ikhustiaz zenbat gostatzen zitzaioen haren aztea.



## Heroiaren bidaia


Heroiaren hasierako etxean eskasia egoera



### Aitabitxi bat Un padrino

—Nahi baninduzu zure lehenbiziko  
hauraren aitabitxi iñ zuen legian,  
eman zintzaket dirua franko.  
Erraten dio baietz, iñen duela.  
Badohazi elizarat  
eta ematen dio izena Malbruk.

—Si me quisieras hacer padrino,  
según vuestras costumbres, de tu  
primer hijo, te podría dar mucho dinero.  
Le dice que sí, que lo hará.  
Van a la iglesia  
y le pone por nombre Malbruk.



### Nace una heroína

Después de que éstos se hubieron  
marchado dio a luz a una niña.

Heroi neskatoa jaiotzen da  
Hek gan onduan ematen du mundurat  
neska txiki bat.



Lainez

"La viuda  
pescadora  
en el puerto".  
"Arrantzalearen  
alarguna kaian".  
Aurelio Arteta.

"Árbol de la vida".  
"Bizitzaren zuhaitza".  
Carmelo Ortiz de Elguea.



### Héroes y heroínas

La niña le dice que ella también se tiene que ir. Que le diera  
una pieza de tela, como para siete camisas, y que quería  
partir al momento.

La madre tenía una gran pena.

### Heroia: neska edo mutila

Erraten dio neskak gan behar duela harek ere. Eman diozela  
oihal peza bat,  
zazpi athorren egiteko, eta berehala nahi duela gan.  
Amak pen handia zuen.

Él le dice:

—Es igual. Pon la serpiente despacio, despacio, en el suelo, sin despertarla.

La pone, y se lleva a la joven mujer al balde. Tira (de la cuerda).

Y va a otra habitación, y ve a otra mujer todavía más hermosa, con la cabeza de un león dormido en el regazo.

Ésta también le dice:

—Márchate de aquí enseguida. No duerme más de media hora. Si se despierta tu y yo, ya la hemos hecho (habremos muerto).

Malbruk le dice:

—Pon despacio, despacio, la cabeza de este león en el suelo sin despertarle.

Lo hace. Malbruk la toma y se mete con ella en el balde, y los hermanos les suben a los dos.

Le escriben enseguida al rey para que vengan a buscarlos, que ya han encontrado a dos de las hijas. (Tal como os imagináis, el rey les manda en seguida una carroza en su busca y hace unas grandes fiestas). El rey le dice que elija a cual de las dos prefiere para esposa. Le responde Malbruk que en cuanto encuentren a la tercera hija, ésta sería su esposa. Y que sus hermanos tomen por esposas a estas dos jóvenes. Hacen como Malbruk dice, y Malbruk parte en busca de la que ha de ser su esposa.

\* \* \*

Ya va, va, va, va. (*Va, ir, ir, ir*). Todos los animales salvajes conocen a Malbruk. Y según iba andando (se) encuentra (con) un lobo, un perro, un milano y una hormiga, y le gritan a Malbruk, diciéndole: ¡Oyhu!(3)

—¡Tú, Malbruk! ¿A dónde vas? Estamos tres días queriendo repartir este carnero y no nos ponemos de acuerdo, pero tú nos harás el reparto.

Malbruk va asustado, pensando que también a él lo repartirán. Corta la cabeza (al carnero) y se la da a la hormiga, diciéndole:

—Ahí tendrás comida y casa.

Le da las tripas al milano, y parte por la mitad el carnero para el perro y el lobo. Dejó a todos muy contentos.

Y Malbruk va por su camino, callando callando. Después de un buen trecho las hormigas le dicen:

—No le hemos dado nada en pago a Malbruk.

Y el lobo le grita que venga. Malbruk ha llegado pensando que es su turno y que, sin duda, le van a comer.

La hormiga le dice:

—Tú has hecho tan bien el reparto, y no te hemos dado nada. Pero cuando quieras convertirte en hormiga, te será suficiente con que digas, 'Jesús hormiga', y te convertirás en hormiga.

El milano le dice:

—Cuando quieras convertirte en milano, dirás, 'Jesús milano', y serás milano.

El lobo también le dice:

Erraten dio:

—Igual da. Emazu puliki puliki atzarri gabe suge hori lurean.

Ematen du eta erematen du andre gazte hori pusaderian. Eta badoha bertze gela baterat eta ikhusten du bertze andre bat alere ederragoa, leoin baten burua altzuan lo. Erraten dio harek ere:

—Zoazi hemendikan fite. Ez du oren erdi baten lua beizik. Atzartzen bada zurea eta nereia iña da.

Erraten dio Malbrokek:

—Emazu puliki puliki leoin horren burua lurean atzarri gabe.

Iten du. Hartzen du Malbrokek eta pusaderian sartzen da harekin eta anaiek altxatzen dituzte biak.

Eskribatzen dute berehala errege jaunari ethortzeko billa, atzeman dituztela bi alaba. Pentsatzen duzuen bezala erregek egortzen du berehala karrosa bat heien bila eta iten ditu besta handiak. Erregek erraten dio behex dezan biyatarik zein nahi duen emaztetzat. Malbrokek erraten dio hirugarren alaba atzematzen duenian hura izanen duela emazte. Eta bertze anaiek ar ditzatela bi andre gazte heiek emaztetzat. Iten dute Malbrokek erran bezala eta partitzen da Malbrok bere andre beharraren billa.

\* \* \*

Badoha gan, gan, gan. Ihiziki<sup>10b</sup> guziek ezagutzen zuten Malbrok. Bazabillalarik atzematzen du otso bat, potzo bat, miru bat eta xinaurri bat eta iten diote oiuhu Malbroki, erraten diotelarik:

—Norat hua Malbrok? Hiru egun huntan zikiro hau ezin partituz gaotzik ez akort izanez, bañian hik inen geituk partilla<sup>11</sup>.

Badoha beraz Malbrok ikharetan, hura ere partituko dutela. Pikatzen du buruba eta ematen dio xinaurriari erraten dioelarik: Oyhu!(3)

—Izanen duk hor jatekoa eta etxea.

Ematen dio miruari tripak eta potzuentzat eta otsoentzat egin zuen zikirua erditik. Utzi zituen denak arras kontent.

Eta Malbrok badoha bere bidean ixil ixilla. Bide puska bat egin duenian xinaurriak erraten diote:

—Ez diogu Malbroki deus eman sari.

Eta otsoak iten dio oiuhu ethortzeko. Malbrok heldu da ikharetan haren sainja dela eta jan behar dutela duda gabe. Erraten dio xinaurriak:

—Deus ez haigu eman hain ungi partillak egin eta. Bañian nahiko dukanian xinaurri billakatu, askiko duk erratia «Jesus xinaurri»: xinaurri bilakatuko haiz.

Miruak erraten dio:

—Miru nahaukanian billakatu, erranen duk «Jesus miru» eta miru izanen haiz.

Otsoak ere erraten dio:

—Cuando quieras convertirte en lobo, dirás, ‘Jesús lobo’, y serás lobo.

Y el perro también (le dice) igual(4).

\* \* \*

Y se va adelante encantado. Yendo por el bosque una picaza le dice:

—¿A dónde vas Malbruk?

—En busca de la hija de tal rey.

—No la encontrarás muy fácilmente. Desde la liberación de sus hermanas ha sido llevada al otro lado del mar bermejo (rojizo)(5), a una isla y allá, en una hermosa casa, la tienen presa; y tiene en las ventanas y puertas unas rejas tan cerradas que no pueden entrar más que las hormigas, en aquella casa. Malbruk iba contento con la noticia que había sabido (sabía), pues encontraría a la princesa.

Va, ir, ir, ir y llega delante de aquella isla, y recordando lo que le dijo el milano, dice:

—Jesús milano.(6)

Y en seguida se convierte en milano.

Emprende vuelo y va hasta la isla, según le dijo la picaza. Ve que no puede entrar sino como una hormiga y dice:

—Jesús hormiga.

Y entra por un pequeño resquicio. Enloquece al ver la hermosura de aquella joven. Dice:

—Jesús hombre.

Cuando le ve la joven le dice:

—Vete de aquí cuanto antes. Tu vida habrá acabado. Antes de un cuarto de hora vendrá un enorme cuerpo sin alma(7) y habrás acabado.

Él le dice:

—Me convertiré en hormiga y me pondré en tu papada, pero no te rasques demasiado fuerte pues de lo contrario me reventarás.

Nada más decir eso llega el monstruo. (A la mujer) le da de comida perdices y palomas, y él come serpientes y algunas otras porquerías. Le dice que le duele la cabeza y que coja el martillo y le pegue con él en la cabeza. (La mujer) no podía levantar el martillo de lo grande que era, pero le pegó como pudo.

El monstruo se va. La hormiga sale de su sitio y, con aquella mujer, prepara las perdices y las palomas y las comen.

La hormiga le dice:

—Le tienes que preguntar, como si estuvieras muy apenada, qué es lo que habría que hacer para matarle a él, y le dirás lo desgraciada que serías si muriera; que podías morir de hambre presa en aquella isla.

La mujer le dice que sí (le dirá).

Llega otra vez el monstruo y le dice:

—¡Ay, ay, la cabeza! Coge el martillo y pégame fuerte.

La mujer le pega hasta cansarse y entonces le dice lo desgraciada que sería si él muriese. Le dice que no morirá.

—Nahiko dukanian otso billakatu, erranen duk «Jesus otso» eta otso izanen haiz.

Eta potzoak ere igual(4).

\* \* \*

Badoha aintzina lorietan. Oihanian zualarikan pika batek erraten dio:

—Norat hua Malbruk?

—Holako erregeren alabaren billa.

—Ez duk atzemanen erreski. Bertze ahizpak libratuz gezotzik eremana duk itsaso gorriz(5) bertze alde, irla bate rat eta han etxe eder batean preso atxikitzen dik lehuak eta atheak halako xarreta<sup>12</sup> txikiak ditizke non xinaurrik bertzerik ezin sar beititake etxe hartarat.

Malbruk berri hori jakiñik kontent zuan, atzemanen zuela bere printzesa.

Badoha gan, gan, gan eta arribatzen da irla haren aintzinerat eta orroituz miruak errana, erraten du:

—Jesus miru(6).

Eta billakatzen da berehala miru.

Airatzen da eta badoha irlaradiño pikak erran bezala. Ikhusten du ezin sartu dela xinaurri bezala bertzerik eta erraten du:

—Jesus xinaurri.

Eta sartzen da tarte ttiki batetik. Soratua da ikhustearikin andre gazte haren edertasuna. Erraten du:

—Jesus gizon.

Andre gazte harek ikhusi duenian erraten dio:

